

Kirola

Biharko Izarrak txapelketan Andoni Ugaldek afizionatuetako azken partidua jokatu du, Aspegaz debutatu aurretik > 13



UDA



Aste luzetako eztabaidaren ostean, Mercadonak uko egin dio Abadiñoko Murueta auzoan saltokia zabaltzeari. Baina, Durangaldean egon gura du. Lurralde plangintzak aukera emango dio. > 2-3

Mercadona: agur, ala gero arte?

Lehior Elorriaga

A-8 autobidean, hilean 30 euroko muga ipiniko dute 2017tik aurrera

A-8 autobideko Durangaldeko erabiltzaileek ez dute 30 euro baino gehiago ordaindu beharko hilean Bizkaiko zatian ibiltzearren. Izan ere, Foru Aldundiak neurri berria iragarri du: A-8 autobidea, Hegoaldeko saihebidia eta Artxandako tunelak erabiltzearren, hile bakoitzeko 30 euroko muga bateratua ezarriko du 2017tik aurrera. > 6

“Plazetako jardunetik elegantzia handiz erretiratzen asmatu du Xabier Amurizak” > 12

Andoni Egaña | Bertsolaria



ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net





**SASI-GARBITZEKO
MAKINA HORZDUNA**



ARE-MAKINA



**MINIHONDEATZAILEA 1000 KG
ZABALERA 0,80**



**BELDAR-MINI
DUMPERRA**

Durangaldea > 6

La Cuadri del Hospik bidea grabatu du Fitogaz

Elorrio > 4

Asiako liztorrak harrapatzeko tranpak jarri dituzte ikasleek

Atxondo > 8

Sasoiko produktuak ekoizteko ortua jarri dute martxan

Izurtza > 9

Santo Tomas inguruan jolasleku berria eraikitzen hasi dira

> Herririk herri

Juan Requejo | Plangintza aholkularia | Sevilla, 1955

“Ez dago produkzio ereduaren berrazterketa sakonik kontsumo eredia berraztertu gabe”

Kontsumitzeko moduekin bat joan ohi dira udal erabakiak, Requejoren ustean

> ERREPORTAJEA A. Basauri

Lurralde garapena eta Durangaldeak sozioekonomiko-ki beharko lukeen antolaketa izan dute hizpide, asteen, Durangaldeko Amankomunazgoak antolatuta. ‘Oinak Lurrean’ izenburupean antolatutako jardunaldian adituek parte hartu dute, tartean, nazioartean hirigintza arloan lan egin duen Juan Requejo. Azalera handiko saltokiak ere izan ditugu hizpide beragaz.

‘Oinak lurrean. Beharrezkoa da lurraldean oinarritutako garapena’. Premisa horretatik abiatu duzu hitzaldia.

Mundu garaikidean, garapena lurraldetik banatzen joan da pixkanaka. Antzina, elikatu, jantzi, babestu edo energia lortzeko, lurraldea zen oinarria, bizimodua horren inguruan antolatuz. Mundu garaikidean, energia piloa behar duen hainbat teknologia garatu da, eta mundua homogeneousatu egin da. Mundua oso antzerakoa da edonon. Kontsumo eta ongizate maila altuagoa lortu dugu, baina, lurraldea ez da sistemaren oinarritzko elementua: toki guztietan berdin produzitu eta kontsumitzen dugu.

Horri buelta eman behar zaio? Lorpen handiko eredu honek ingurumen eta arazo sozial handiak ditu, eta sistemaren biziraupena larriki arriskuan jartzen dute. Lurraldea oinarritzko elementu izango duen eredu berri bat beharrezkoa da bizirik

“*Gezurra da saltoki handiek enplegua sortzen dutela; enplegua suntsitu egiten dute*”

irauteko. Kontrolpean ez dituen aldagaien menpe ez dagoen garapen eredu sendoa behar da. Horrek lurraldearen baliabideak erabiltzea eskatzen du.

Globalizazioari aurre egitea esan nahi du horrek?

Nekazaritzan, turismoan, energia arloan... lurraldean oinarrituko den produktu bereizlea eskaintzea lehiakortasun estrategia bat ere bada mundu garaikidean, ez bakarrik ikuskera politiko-ideologiko zehatz bat garatzeko borondatea. Merkeena izaten jarri zenezake indarra, edo lurraldean oinarrituta bereizlea den zerbait egiten.

Zer deritzozu saltoki handiak jartzeko bidea zabaltzeari?

Produktibitate altuagoa duten prozesuek gero eta gehiago ordezkatu dituzte langileak. Langile gutxiago eta robot gehiago dituzte enpresek. Kontsumoaren alorrean, saltoki handiak gero eta gehiago dira, eta gezurra da enplegua sortzen dutela; suntsitu egiten dute. Euren produktuak langile gutxigaz banatzen dute eta funtsa. Horren

aurrean, merkatari txikiak ez du zereginik. Lurraldeak zer gura duen hausnartu behar du.

Gizarteak hausnartu behar du?


Mundu mailako joera horri jarraitu gura zaion edo lurralde moduan eredu berri bat nahi den erabaki behar da. Erabaki hori ez da politikoa, gizarteari dagokio. Modu batera edo bestera kontsumitzen dugu, eta udal erabakiak horren arabera dira. Aldaketa soziala behar da.

Etxeak, industria pabilioiak... berrerrabiltzea behar da?

Ezinbestekoa da duguna erabiltzea. Hala ere, ezin da produkzio ereduaren berrazterketa sakonik egin kontsumo eredia berraztertu gabe. Merkea izatea ezin da izan erosteko, eraikitze... arrazoi bakarra.

Posible da garapen iraunkorra?

Globalitate dinamika honen barruan ez; garapen errukitsua da hori: ahalik eta kalte gutxien eragiten saiatzen den garapena. Iraunkorra baino, errukiorra izatea da hori. Brundtland txostenak dioenez, garapen iraunkorra da, etorkizuneko belaunaldien premiak arriskuan jarri gabe, oraingo belaunaldien premiak asetzea lortzen duena. Horren arabera, produzitzeko eta kontsumitzeko gure erak ezin ditu baliabide naturalak arriskuan jarri, ondorengoek gero eta aukera gutxiago izango lituzkete eta euren premiak garatzeko. Garapen iraunkorra garapen berriztagarria da.



Utopia da, beraz?

Mundu arkaiko batean baino ez da posible garapen iraunkor osoa. Baina, hurbildu gaitezke. Horretarako, lurraldea eta ditugun baliabideak aztertu behar dira, eta lehentasunak zehaztu behar ditugu.

Honetarako guztirako garran tziutsuak dira lurralde-planak?

Bai. Ezinbestekoak dira arazoa osotasunean ulertzeko, eta ikuskera orokor bat lortzeko. Baina, plangintza on bat lortzeko ez du esan gura etorkizuna lotuta dugunik. Hori beti da ezezaguna.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko ekainaren 10a
14. urtea - 636. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Mercadona: Abadiñori ezetza, baina Durangaldeari baietza

Mercadonak beste herri batean zabaldu dezake, lurralde planak ahalbidetuta

ABADIÑO I.E. / M. O.

Mercadonak atzera bota du Abadiñon supermerkatua zabaltzeko asmoa. Ondorioz, udalaren planean aldaketak eka-

rriko ditu erabakiak; ostera, ez dirudi, momentuz, eskualdeko komertzioaren antolaketan eraginik edukiko duenik. Izan ere, Abadiñori ezetz esan arren,

baiezkoa eman dio Durangaldeari. Beraz, beste herri batean zabaltzeko aukerari eusten dio. Kontua da 2011n onartutako Durangaldeko Lurralde Zati

Planak ahalbidetzen duela hori; merkataritza txikia indartzea beharrezkoa dela zioen planak, baina beste lau edo bost supermerkatu zabaltzeko aukera ere aurreikusten zuen. Hain zuzen ere, plan hori kontuan hartuta baimendu zuten epaileek Aki brikolaje zentroa zabaltzea, Dendak Bai eta Bizkaidendak elkarteek errekurritu ostean. Arlokako Lurralde Plana aintzat hartuz gero, Montorretan zentro komertzialak eraikitzeo lur kopurua gainditu zela salatu zuten merkatarri elkarteek.

Presioa ez ei da arrazoa

Abadiñoko proiektua alboratu arren, Mercadonako arduradunek baieztatu dute enpresak aurrera darraiela Durangaldean saltoki berri bat zabaltzeko ideiaz. Beste proiektu batzuk ei dituzte esku artean, eta horiek aztertzen dabilta.

Eskualdeko herritarren eta merkatarrien presio soziala nabaria izan da udalak Muruetako planaren berri eman zuenetik, eta eztabaida politikoa ere agerikoa izan da. Hala ere, Mercadonako arduradunek garrantzia kendu gura izan diote presio horri: "Kontratua sinatu arte ez ditugu proiektuak publiko egiten, eta sarritan alboratzen ditugu

proiektuak". Kaleartean plataformako Goretti Galanek balioa eman dio, ordea: "Harrigarria da, baina badirudi enpresak gure herriko alkateak baino gehiago entzun duela herritarrok esan duguna, eta erabaki du hemen sortzen ari den erantzunak kalte egiten diola markari".

Jose Luis Navarro alkateak iragarri zuen Mercadona, Lidl eta beste saltoki bat Muruetan zabaltzeko plana, eta, horretarako, lurrak birkalifikatzeko prozesua hasi zuen. Mercadonaren ukoaren ostean, ez dio baloraziorik egin ANBOTOrri.

Mercadonako arduradunek garrantzia kendu gura izan diote presio sozialari

Galan merkatarriak gogoratu du ez daudela enpresa zehatz batzuen aurka, baizik eta desadostasuna dutela "horrelako merkataritza-guneek dakarten kontsumo ereduagaz". Komertzioaren antolaketaz iritzia eman gura dute galdeketa: "Zelako herria gura dugun adierazteko aukera eman behar digu udalak".



Kaleartean plataformak ia 1.000 sinadura batu ditu birkalifikazioaren inguruko galdeketa eskatzeko.

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Izen-ematea

ekainaren 6tik 17ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017



LABORAL KUTXA



Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

'Jon Peli gogoan' omenaldia, ekainaren 18an

ABADIÑO Itsaso Esteban Martxoan Palentzian gertaturiko istripu batean hil zen Jon Peli Larruskain abadiñarra, eta ekainaren 18an omendu egingo dute, Traña-Matienan. Egun osoko eta adin guztietarako egitaraua antolatu dute, besteak beste, jai batzordeko kide, zinegotzi, eta tabernari izan zen Txuparen omenaldirako. 12:00etako txupinazogaz hasiko dute egitaraua, eta bazkari herrikoa egingo dute, 15:00etan. Horren aurretik, goizean, auto erakusketa eta umeentzako jolasak egingo dituzte. Kontzertuak antolatu dituzte, gauerako: Eskorbuto eta Parabellumen bertsioak, eta Baske Street Boys, Habemus Papam, eta Los Amaia taldeen musika izango dira entzungai.

Lana bilatzen laguntzeko ikastaroa

ABADIÑO I.E. Hamazazpi eta hogeita hamar urte arteko gazteak lana bilatzeko teknikan trebatzeko ikastaroa antolatu du Abadiño-ko Udaleko Gazteria sailak, "lana bilatzeko gazteen ahaleginak arrakastatsuak izatea" lortzeko. Bihar goizean burutuko dute ikastaroa, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Besteak beste, hautaketa prozesuei zelan aurre egin, curriculumak zelan idatzi, eta lan elkarrizketak zelan egin landuko dute ikastaro horretan parte hartzen duten gazteek.

Ima Zapartiez Abadiño-ko Udaleko gazteria arloko zinegotziak azpimarratu duenez, lana bilatzerakoan, "garrantzitsua ez da profil profesionala bakarrik, inportantea da, baita ere, zeure burua zelan ezagutarazten diezun enpresei".

Asiako liztorrak harrapatzeko tranpak ipini dituzte ikasleek

Institutuko ikasleek 20 liztor erregina harrapatu dituzte, eta sari bat lortu dute

ELORRIO Markel Onaindia Elorrioko institutuko Arantza Royuela gurasa erlezaina da, eta berari esker, ekimen kurioso bezain efizientea sortu dute. Asiako liztorraren inbasioaz kezkatuta, Royuelak gaiaren inguruko klasea eman zien institutuko ikasleei, eta ostean, esperimendua landu zuten. Hain zuzen ere, liztorra harrapatzeko

tranpak ipini zituzten ikasleek Zenita auzoan, bost astez. Emaizta itzela izan da: 20 liztor erregina harrapatu dituzte.

Durangaldera duela urte bi heldu zen Asiako liztorra, Frantziatik, eta inbaditzailea da; erleak dira bere elikagai nagusia. Erreginak harrapatzea garrantzitsua da, erreginek gehiago irauten dutelako, eta liztor kopu-

rua handitzen dutelako ere bai. Plastikozko botiletan ardo zuria, garagardo beltza eta basaran zukua nahastuta sortu zuten liztorrak erakartzeko edabea.

"Ikasteko beste modu bat"

Liztorraren esperientzia, irakasle gurasa bat izanik, Hauspoa egitasmoari esker garatu dute. Josu Etxaburu zuzendaria-

ren esanetan, "komunitateagaz batera ikasteko beste modu bat" proposatzen dute, ikasketa erakargarriago egiteko asmoz.

Proiektuagaz bideo bat landu dute, eta sari bat lortu dute ON zientzia lehiaketan. Libe Aju-ria, Leire Celis, Gorka Santos, Aimar Lizarralde, Jone Garitao-nandia, June Elgoro eta Jokin Cadiñanos izan dira ikasleak.

Beste ikasle talde batek ere saria irabazi du berriki, Egin eta Ekin lehiaketan; batez ere, itsuei zuzendutako teleginte bat imajinatu dute. Jon Larraña-ga, Unai Prieto, Maialen Marti-nez, Aimar Lizarralde eta Eneko Arruabarrena dira irabazleak.



Liztorraren aurkako tranpak Zenitan ipini zituzten.



Egin eta Ekin lehiaketan saria irabazi duten ikasleak.

Kirol eskaintzarako izen-ematea internet bidez

Erabiltzaileek, Larrea kiroldegira joan beharrik gabe, aurretiazko izen-ematea egin dezakete

ZORNOTZA J.Derteano Ametx erakunde autonomoa hasia da dagoeneko Internet bidezko tramitazioa ezartzen udal kirol zerbitzuak erabiltzeko. Hasierako eskaintza honetan, erabiltzaileek www.ametx.eus webgunean ikus dezakete ikastaroen eskaintza, eta aurretiko izen-ematea gauzatu, Larrea kiroldegira joan beharrik izan gabe.

Udal ordezkarien esanetan, zenbait herritarren eskaria

izan da azken aspaldi honetan on-line tramitazioa, eta horixe da Ametx erakunde autonomoak eskari horiei erantzuna eman nahian abian jarri duen lehenengo urratsa.

Aurreratu dutenez, luze gabe, kirol zerbitzuen erabiltzaileei ahalik eta erraztasunik handiena emateko helburuagaz, sistema berbera erabili ahaliko da instalazio eta espazioen erreserbak eta ordainketak gauzatzeko ere.

Liberazio barik jardungo du alkateak aurrerantzean

Orain arte lanaldiaren %40an garatu du liberazioa

GARAI M.O. Gontzal Sarrigoitia alkateak (Herriko Taldea) liberazio barik jardungo du aurrerantzean, berak horrela erabakita. Bere eguneroko lanagaz lotutako arrazoiengatik hartu du erabakia. Orain arte, legealdi honetan, udaleko liberazioa lanaldiaren %40an garatu du Sarrigoitia, eta beste inor ez da liberatuko bere partez.

Hemendik aurrera, beraz, lanetik irten eta gero burutuko du alkate beharra, batez ere arra-

tsaldetan. Bere esanetan, gutxienez eguazteneko udaletxean egongo da, arkitektoa egun horretan joaten delako bertara.

Sarrigoitia 2007tik dago alkate karguan.

Lanetik irten eta gero burutuko du alkate beharra, batez ere arratsaldetan



ELIKAGAIEN INDUSTRIAN
goi mailako teknikaria

LEA ARTIBAI

AURREMATRIKULA: EKAINAREN 4TAN 170A

Profesional honek elikagaien industriako enpresa txikietan, ertainetan edo handietan, lan-talde baten barruan egingo du lan. Produzioaren kudeaketako, antolamenduko eta kontrolako zereginak egiten ditu, betiere elikagaien alorreko logistikaren, ikerketaren, garapenaren, kalitatearen eta segurtasunaren arloetan.



Markina-Xemein · 94 616 90 02 · info@leartik.com · www.leartik.com

Metodologia berriekin proiektun oinarritutako ikasketak eskaintzen ditu Iurretako LH zentroak

Ikaste prozesuan dago giltza. Teknologikoki aurreratua, sortzailea, taldean garatua eta errealitatearekin zuzen lotuta dagoena

> LANBIDE HEZIKETA


Hezkuntza, bizitza bezala, al-dakorra da, edo izan behar da. Erronkaz eta pasioz beterik. Iurretako Lanbide Heziketa Ikastetxeak ikasleok, irakasleok... guztiok jakin izan dugu pasio hori bizirik mantentzen eta egunero jardunean elikatzen. Gaurko egoera ekonomiko konplexua izanda ere, edo konplexua delako berez, gure ikastetxeak partaideok eszenario berri batean sartu gara. Eszenarioa emozioz baturik da, kontzientzia gara aukerak ere sortzen ari direla eta etorkizunean gehiago sortuko direla, ilusioa ezin dugu galdu.

Gure seme-alabek Durangaldean etorkizuneko aukerak eduki behar dituzte eta edukiko dituzte. Ikaste prozesuan dago giltza: teknologikoki aurreratua, sortzailea, taldean garatua, eta errealitatearekin zuzen lotuta izan behar da, eta oso ilusionantea. Ikasleentzat ikaste prozesua ilusionantea bada, familientzat, gurasoentzat, irakasleentzat ere ilusionantea izango da, modu berean. Horrekin ba-

tera, landuko dituzten gaitasun teknologikoak eta pertsonalak egokiagoak izango dira bere etorkizun profesionalerako. Eta guk, Iurretan, gure ikastetxean erronka hau gureganatu dugu: metodologia eta didaktika berriekin ikasteaz gain, ikasleentzat ikaste-prozesuaren eboluzioa azpimarratzen dugu eta prozesu horretan gure ahalegina eta indarra erabiltzen ditugu.

Ikaste prozesu honen oinarria da proiektuen bidez ikastea, eta horrekin batera, gaitasun profesionalak, eta hainbesteko inportantzia ematen ez zaien zeharkako gaitasun ez profesionalak lantzea eta sakontzea: lana taldean egitea, iniziatiba garatzea, sormena, elkartasuna, errespetua, ardurak hartzea, autonomia, konstantzia edo autodisiplina...

Jakin badakigu, gure gazteak oso ondo prestatuta egongo direla etorriko diren erronkei aurre egiteko, eta horren ondorioz, gizarte aldakor honetan etengabe birziklatzeko trebeak izango direla.



Sarai Delgadok (27 urte, langilea) eta Lander Sautuak (17 urte, ikaslea) Erdi Mailako Heziketa Ziklo batean ikasi dute ikasturte honetan. Adin desberdinetakoak dira eta profil desberdinak dituzte, baina helburu bakarra dute; gaitasun pertsonalak eta profesionalak lortzea.

Zergatik aukeratu duzue heziketa ziklo bat ikastea?

Sarai: Azalpen erraza du, Durangaldeko enpresa batean nabil lanean asteburuetan eta enpresan bertan gomendatu zidaten formazioa handitzea

fabrikazio mekanikoko arloan. Eta Iurretako Lanbide Heziketako ikastetxea aukeratu nuen.

Lander: Nire kasuan DBH bukatu eta Durangaldeko enpresa batean lan egin nahi nuenez... lanbide heziketako "mekanizazioa" aukeratu nuen nik ere.

Zer aipatuko zenukete zuen esperientziatik?

Lander: Ez nuen espero aurkitu dudana, proiektuen bitartez ikasi dugu, eta oso polita izan da. Nik asko ikasi dut eta ondo pasatu dut.

Sarai: Egia da, ikasteko modua oso desberdina izan da. Proiek-

tu bakoitzean elkarlanean aritzea oso abesgarria izan da eta enpresa munduan egiten denarekin lotura handia du.

Lander: Proiektuekin prozesu osoa ezagutu dugu; diseinua, kalkuluak, mekanizazioa eta muntaia.

Sarai: Eta hau dena proiektu errealekin. Ni oso pozik nago.

Animatuko zenituzkete beste gazte batzuk datorren ikasturtean matrikulatzeko?

Sarai-Lander: Jakina, duda barik. Oso aukera ona da. Lagunei ere esan diet matrikulatzeko (barreak).



www.iurretalhi.eus - 944 66 88 00

Administrazioa

Automozioa

Elektronika

Fabrikazio Mekanikoa

Gizarte eta Kultur zerbitzuak

Informatika

Ziklo guztiak euskaraz

Hasita!

Aurrematrikula: Ekainaren 6tik 17ra
Prematricula: del 6 al 17 de Junio

Matrikula: Uztailaren 11tik 15era
Matricula: del 11 al 15 de Julio

Berria!!
APPen garapena



“Oso ondo pasatu genuen Fitogaz bideoa grabatzen”

Minbiziaren ikerketan laguntzeko bideoan parte hartu du abadiñar batek



Bideoklipetan parte hartu dutenetako batzuk, talde argazkian. Sarean milaka ikustaldi eduki ditu egun gutxitan.

DURANGALDEA M.O. Gurutzetako ospitalean minbiziagaz dauden haurren gurasoek La Cuadri del Hospi elkartea osatzen dute, eta eurei laguntzeko asmoz, bideoklip berria grabatu du Fito abeslariak, minbizia duten gazteak eta

euren senideak protagonista dira. Eider Atutxa 15 urteko abadiñarra da euretako bat. “Ahalik eta jenderik gehien agertzea gura zuten, eta ideia ona iruditu zitzaigun”. Grabatzera joan, eta ederto pasatu zuen: “Amaierarako apur bat nekatuta geunden,

baina oso ondo pasatu genuen”. Minbiziari borroka irabazten dabil abadiñar gaztea.

Bideoa errifa bat iragartzeko egin dute. La Cuadri del Hospi ospitaleko ikerketak finantzatu gura ditu, iaz Durangoko Marea Laranjak egin moduan.

A-8 autobidean, 30 euroko muga 2017tik aurrera

DURANGALDEA M.O.

2017tik aurrera, Bizkaiko ordainpeko errepideetan 30 euroko muga bateratua ipiniko du Aldundiak. Beraz, A-8, Hegoaldeko saihesbidea eta Artxandako tunelak erabiltzeagatik, ez dira 30 euro baino gehiago ordaindu beharko. Ondorioz, Durangaldeko erabiltzaileek ere tope bera edukiko lukete A-8aren Bizkaiko zatian.

Rementeriak uste du Durangaldeko biztanleak direla neurriagatik onura ikusiko dutenetako batzuk: “Uste dugu proposamena bizkaitar guztientzat dela ona, Bizkaiko edozein herritan bizi direla ere. Baina, bereziki, Durangaldean, Busturialdean eta Lea Artibain bizi direnentzat”.

3,3 milioi, urtero

Rementeriak esan du sei hileko lanak egingo dituztela. Gainera, obrak 750.000 euroko inbertsioa eskatzen duela dio, eta gero, urtero, sistemaren kostua 3,3 milioi eurokoa izango dela ere bai.

Negozioak jartzeko diru-laguntza eskaera hilaren 15era arte

OTXANDIO J.D.

Lanbidek lanik ez duten eta euren negozioa jartzeari ekin gura dioten pertsonen zuzendutako laguntzak onartu ditu. Laguntzak lortu ahal izateko eskaera epea ekainaren 15ean amaituko da. Otxandion Zuiaiko Koadrilla da deialdia gauzatzeko erakunde laguntzailea, eta bertan egin daiteke laguntzak lortzeko eskabidea: economia@cuadrillazuia.com

Laguntzak bi motatako ekintzaileei zuzenduta daude, eta bateko zein besteko plazak mugatuak dira. Enpresa ideia bat dutenek ideia hori gartzera bideratuko da bat. Lau plaza daude arlo honetarako. Bigarrena bideragarritasun plana eginda eta negozio ideia definitua duten ekintzaileei zuzenduta dago, hurrengo hileetan martxan jartzeko bidea izan dezaten. Kasu honetan ere, gehienez, lau ekintzaileri lagunduko diete.

Intxaurre Eguna ospatuko dute hilaren 18an

DURANGO M.O.

Ekainaren 18an Intxaurre Eguna ospatuko dute Durangon, elkartea sortu zenetik 30 urte bete direlako. “Intxaurre Eguna antolatu dugu urtemugak merezi duelako, eta egoera judiziala salatzen”, esan dute antolatzaileek. Herriko tabernen auzian dago Intxaurre, eta epaia emanda, edozein egunetan itxi dezaketela gogoratu dute. Goizetik hasiko da jaia: umeentzako puzgarriak, pintxoak, bazkaria eta kontzertuak egongo dira, besteak beste.

Euskalgintzaren hartuemanak aztergai

Plateruenean burutuko da berbaldia, 15ean

DURANGO M.Z.

Guka! euskaltzaleen bilguneak antolatuta, euskalgintzaren eta erakunde publikoen arteko hartuemanen hausnartuko dute datorren eguaztenean, hilaren 15ean. Plateruena kultur gune herriarrean burutuko da eztabaida saioa, eta 19:00etarako iragarri dute hasiera.

Hiru hizlarik parte hartuko dute: Manex Agirrek, Arrate Gisasolak eta Mikel Irizarrek. Gorbeialdeko Kuadrillako euskara teknikaria da Agirre, So-

raluzeko euskara elkarteko koordinatzaile ohia Gisasola, eta Gizpuzkoako hizkuntza berdintasuneko zuzendaria Irizar. Dinamizazioa Jasone Agirre kazetariaren esku egongo da.

Hiru hizlarik parte hartuko dute: Manex Agirrek, Arrate Gisasolak eta Mikel Irizarrek

Gazte arloko alternatibak eraikitzeke deia

DURANGO M.O.

Durangok eskualde mailako gazte topaketa bat hartuko du bihar, *Gure aukeren jabe erakiz* lemapean. Gazteen bizimoduari lotutako alternatibak sortu eta eztabaidatzeko nahia agertu dute. Aisialdia, musika, kirola, etxebizitza... Arlo ugari jorratuko dituzte eztabaidan. 11:00etan hasiko dira eztabaidak Ibaizabal ikastolan eta Sorginola gaztetxean, eta 15:00etan bazkaria egongo da. Arratsaldez tailerrak garatuko dituzte, eta kontzertu batez gogoratu amaituko dute topaketa, 20:00etan.

Gereako San Adrian jaiak, datorren astean

MALLABIA J.G.

Datorren eguenean, ekainaren 16an, San Adrian egunez emango diete hasiera Gereako jaiak. 12:00etan meza izango da, eta 19:00etan txopoa jasoko dute. Asteburura begira, hainbat ekintza antolatu dituzte. Ekainaren 18an, arratsaldean, umeentzako txokolatada eta briska txapelketa antolatuko dituzte. Domekan, berriz, mezaren ostean, Gazte Alai taldeak erakustaldia eskainiko du. Bertsolariak eta herri kirolak izango dira eguerdian. Arratsaldean, asto probak izango dira Bittorio, Irazola eta Satxibarregaz.



arizmendi ikastola PRO

konfiantzaz

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

Zure Lanerako Bidea

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 6tik 17ra

→ TAFYD

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika Berria!

→ Osasun larrialdiak Berria!

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbide@arizmendi.ikastola.eus

www.arizmendipro.eus



RENAULT
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



**RENAULT
OCASIÓN**

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

Sasoiko produktuak hazteko ortua martxan dute ikastetxean

Berton Bertokoa dinamikaren barruan, gurasoek ikastetxeagaz elkarlanean sortu duten proiektua da

ATXONDO J.Derteano
Kalitatezko elikadura osasuntsua umeentzat, bertako eta sasoiko produktuekin. Horixe aldarrikatzen du Durangaldeko hainbat ikastetxetako gurasoen elkarteek sustatzen duten Berton Bertokoa dinamika. Atxondoko LHIn filosofia hori errealitatera eramateko hainbat urrats eman dituzte azken hiletan. Azken pausoa ikastetxearen atzealdean martxan jarri duten ortua da.

Gurasoen elkarteak ikastetxeko zuzendaritzagaz elkarlanean gauzatu du proiektu hori. Ikastetxearen atzealdeko landako hiru ortuak eta inguruko azpiegiturak guraso elkarteak egin ditu, hile eta erdian: "Asteburuetan eta txandaka, bakoi-

tzak ahal zuen heinean lagun-
duz", gogoratu du Urkiol Arkarazo gurasoak. Orain, eskolako irakasle eta langileak dabilta umeekin ortua lantzen. "Gaztetxoei ortuagaz hartueman zuzena izatea da helburua. Parte hartu dezatela haziak ereiten edo landareak landatzen, albotik begira egon beharrean. Ortuari etekin pedagogikoa atera gura zaio", azaldu du Alex Azpiri gurasoak. Letxugak, kalabazinak, tomateak, piperrak... gaur askotariko landareak ikusi daitezke ortuan.

Atxondoko ikastetxeak gaur egun ez dauka sukaldarik. Beraz, momentuz, batutako uzta umeen artean banatu, eta etxera eramango dute bertan kontsumitu dezaten.



Atxondoko LHI-ko hainbat ikasle eta guraso ikastetxearen atzealdean martxan dagoen ortuan.

Herriko sukaldarien bisita
Azken urtean, elikadura osasuntsuaren gaineko pedagogian sakontzeko, mota askotako ekimenak gauzatu dituzte. Horieta batean herriko jatetxetako sukaldarien laguntza izan dute. Akebaso eta Mendigoikoako sukaldariak, esaterako, ikastetxera joan dira gaztetxoei zerbait

kozinatzeko eta euren galderei erantzuteko. Datorren ikasturtean beste sukaldari batzuen bisitak hartuko dituzte.

Herriko ekoizleei bisita
Ikastetxean bertan bisitak jaso ez ezik, ikasleak eurak ere bisitak egitera irten dira noizean behin. Iaz, Atxondoko hainbat

ekoizleren lana (okindegian, oilategian, ortuetan...) bertatik bertara jarraitzeko aukera izan zuten gaztetxoei. Ondoren, herriko ekoizleen sasoiko produktuekin hiru otxara bete, eta eskuragarri jarri zituzten. Ekoizleen datuak jasotzen dituen zerrrenda bat ere banatu zuten otxarekin batera.

Bentabarri saldu dute, eta igerileku ondoko lurra erosi

Lursaileko zati bat herri ortuetara bideratuko dute

ATXONDO J.Derteano
Apiril hasieran udalak enkan-
te publikora atera zituen bere jabetzakoak ziren Bentabarri baserria, ondoko biltegia eta inguruko partzela batzuk. 57.795 eurotan atera zuten. Enkantea indarrean egon den epealdian eskaintza bakarra jaso dute —gutun-azal itxian— eta 61.000 eurokoa izan da. Beraz, partikular horri saldu diote baserria.

61.000 euro horietatik 33.000 igerileku ondoan 3.000 bat metro karratu dituen lur zatia erosteko erabili ditu udalak, aurrekontuetan onartu zenari jarraituz. Lur zati horretako zati bat

herri ortuak jartzeko erabiliko dute. Ortuak martxan jartzeko beharrezko azpiegiturak egokitzeko ez dute epe zehatzik, baina, udan zehar martxan izatea gustatuko litzaiekeela aipatu du Dabid Cobos alkateak.

Gorka Garate EAJko zinegotzia kritikoa agertu zen: "Ez dakigu ortuetarako eskari nahikorik badagoen". Lurrak erosteko dirua beste beharrezko batzuetara bideratu zitekeela uste du. Alkatearen esanetan, "epe luzera begirako inbertsio interesgarria" da, eta, ortuez gainera, beste azpiegitura batzuk har ditzake.

Igerilekurako sarrerek prezio berdina egunero

ATXONDO J.Derteano
Igerilekuetako sarreren prezioa berdina izango da asteko zazpi egunetan. Iaz, astegunetako eta asteburuetako prezioak ezberdinak ziren. Bi prezioen erdibidean ezarri dituzte berriak: 3,5 euro izango da sarrera 18 urtetik beherakonetzat, eta 4,5 euro 18 urtetik gorakoentzat.

Aurten, igerilekua ekainaren 20tik irailaren 4ra zabalduko dute, ohi baino 15 egun gutxiago. Ekaineko lehen egunetan eta irailean igerilekura jende gutxi joaten dela-eta, gastuak murrizteko hartu dute erabakia. Horrela, "gastu osoaren seiren bat aurrezteko espero dugu", dio Cobos alkateak.

Eskoletako azpiegituren erabileraz ohartu dute

Kirolerako daude zabalik eskola-orduetatik kanpo

IURRETA Aitziber Basauri
Herriko ikastetxe publikoetako kirol-azpiegiturak kirola egiteko eta jarduera hori errazteko baino ez daude zabalik eskola-orduetatik kanpo, "zenez erabiltzeko" eta "pertsonek bere bereak azpiegitura guztiak bereganatu gabe". Halaxe azaldu dute udal arduradunek. Hartara, ahalik eta erabiltzailerik gehien izan ditzaten.

Hori dela-eta, gogoratu dute debekatuta dagoela erretzea, beirazko eta plastikozko ontzi edo tresnak sartzeko edota animaliak sartzeko —itsuei laguntzen dietenak ezik—. Ezin da

zaborra sortzen duten janari edo edaririk kontsumitu, edo piknik edo meriendarik egin,

Erabiltzaileak kalteen eta garbitasunaren erantzule izango dira

ezta azpiegiturena ez den bestelako elementurik jarri ere.

Esan dutenez, sortutako kalteen eta garbitasunaren erantzule izango dira erabiltzaileak, eta gastu ekonomikoek zein isunari egin beharko diete aurre.

hitz #gomendioak
artekalea 14, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT ELUR BUSTIA
Pello Lizarralde (2016)

UME ETA GAZTEENTZAT MUNSTRO ARROSA
Olga de Dios (2016)

MUSIKA LA MÚSICA, LA CANCIÓN Y LA PALABRA
Atahualpa Yupanqui (2009)

Edinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

Jolasleku berriak estimulua izan gura du gaztetxoek irudimenerako

Santo Tomas inguruan jolasleku berria egiteko lanak asteon hasi dituzte



Martitzenetik zorua jolasleku berrirako prestatzen ari dira hondeatzaileak.

IZURTZA J.Derteano

Santo Tomas inguruan dagoen jolaslekua goitik behera bertutuko dute. Gune berria, jolasleku ez ezik, gaztetxoek euren imajinazioa askatzeko gune izatea ere gura dute, eta helburu hori buruan dutela erabaki dute diseinua.

Lehenengo jolaslekuak hainbat urte zituen, jolas batzuk falta zitzaizkion, eta kolpeak malgutzeko jarritako zorua zaharkituta zegoen. Horregatik, gune berri bat egitea erabaki dute, eta abagune hori jolaslekuari nortasun hezitzailea

emateko aprobetxatuko dute. Nortasun berriko zutarrak natura eta irudimena dira. Alde batetik naturan ohikoak diren elementuak (harria, egurra, harria, loreak...) erabiliko dituzte jolasguneko gune desberdinak diseinatzeko: "Umeez naturagaz kontaktu zuzenagoa izatea gura dugu", dio Lorea Muñoz alkateak. Aurreko jolaslekuko egitura batzuk ere berrerrabiltzatuko dituzte. Bestetik, gaztetxoek irudimenerako erronka bat izan dadila gura dute. Guneek iradoki egingo dute, eta umeez imajinatu: "Aurreko jolasguneak

neak ibilbide bera zuen beti, eta ez zuen gazteen irudimena sustatzeko aukerarik eskaintzen". Proposamen berria Europan gero eta gehiago erabiltzen ari dela-eta, azken erabakia hartu aurretik hainbat eredu begiratu dituztela azaldu du Muñoz alkateak.

Proiektua gauzatzeko 26.600 euroko atala gorde dute aurrekontuetan. Hondeatzaileak martitzenean hasi ziren lanean, eta 15 egun barru zorua behar moduan jartzea itxaroten dute. Ondoren, egiturak jarriko dituzte.

Auto klasikoek erakusketa egingo dute domekan

ZALDIBAR Itsaso Esteban Duela mende erdi baino gehiago fabrikatutako autoen erakusleku bihurtuko dute, ekainaren 12an, domekan, Zaldibarko Euskal Herria kalea. Gipuzkoatik eta Frantziatik beraien auto klasikoak ekarriko dituzten gidarien 20 auto eta 6 motor ipiniko dituzte, domekan, 10:00etatik 18:00ak arte, Zaldibarko kale nagusian jendaurrean ikusgai.

Zaldibarko kaleetan zehar ibilbidea egingo dute erakusketara ekarritako autoek, 12:00etatik aurrera, eta ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira gidari eta antolatzaileak. 18:00 ingurura arte Euskal Herria kalean izango dira auto klasikoak erakusketan.

Gipuzkoatik eta Frantziatik ekarritako 20 auto eta 6 motor klasiko ipiniko dituzte erakusketan

2014an antolatu zuten Zaldibarren auto klasikoek erakusketa lehenengoz, eta bigarren edizioa izango da domekakoa. Herriko autozale biren ekimenez eta udalaren laguntzagaz antolatu dute, orain bi urte bezala, aurtengo erakusketa.

VI. Korpion memoriala, Legañoako jaietan

BERRIZ M.Z.

2014an Legañoako jaiak berreskuratu ondoren, gaur, 20:00etan, 2016ko Legañoako Jaietako emango zaie.

Aurtengoan ere, Jose Ramon Korpionen oroimenez, bakailao lehiaketa antolatu dute, eta gura duenak, aurrez izena emanda, aukera izango du bertan parte hartzeko.

Horrez gain, munduko janari dastaketa, Kukai dantza konpainiaren eta herriko dantza taldeen ikuskizunak, Bad Limit eta Zain taldeen kontzertuak, Ezten Giro taldearen erromeria... ere egingo dira.

Eraikinen ikuskaritza teknikoaz berbaz

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udalak batzar zabal antolatu du hilaren 14rako, martitzena, eraikinen ikuskaritza teknikoaz berba egiteko. 19:00etan hasiko da, pleno aretoan.

50 urtetik gorako etxeak ikuskaritza pasatzera behartuta daude 2018a baino lehen, eta horren argipenak eskainiko ditu udal arkitektoak.

DURANGALDEA ASTEON

Durangoko igerilekuak zabalik, baina taberna barik

DURANGO > Asteon hasi da udako denboraldia Tabirako igerilekuan, baina taberna ez dute zabaltzerik izan. Udalaren arabera, taberna gestionatzen egon den pertsonak 2017ra arteko adjudikazioa zeukan, baina joan zen astean uko egin zion. Taberna ez zabaltzearen erantzukizuna pertsona horrena dela esan du udalak; hala ere, barkamena eskatu die erabiltzaileei. Ondorioz, berriro zabaldu behar du lehiaketa.

Ekainerako egitaraua prestatu dute Sapuetxen

DURANGO > Ekainerako egitaraua kulturala prestatu dute Sapuetxen. Bihar Kurdistanen aldeko jaialdia egingo dute, 18:00etan hasiko den kontzertu batez. Hurrengo egunean jarraituko dute ekintzek; 21:00etan, La Noche Boluda ikuskizuna eskainiko dute. Bestalde, San Joan bueltarako ere badute iragarpenik: 23an billar txapelketa eta sua egingo dira, eta 24an, afari beganoa Umerri eskolaren alde.

Fotonobela batez, kulturartekotasuna lantzen

DURANGO > Gaur, 20:30etik aurrera, *Ane&Abu* izeneko fotonobela eskainiko dute Plateruena kafe antzokian. Jatorri askotako gazteekin kulturartekotasuna lantzeko Durangoko Udalak sustatutako tailer batean du oinarria, eta Txelu Angoitia argazkilariak zuzendu du fotonobela. Tailerrean parte hartu duten gazteek istorio bat sortu dute, denetarikoa kultur adierazpenak erabiltuta.

IRITZIA

Lekuko aldaketa Kimuak Aisialdi Elkarteak

Urte batzuk pasa dira dagoeneko begirale lanetan boluntario gisa aritzen ginen lagun batzuk Kimuak sortu genuenetik. Denbora tarte horretan hamaika gorabehera bizi izan ditugu elkarte moduan nahiz maila pertsonalean, eta, hala ere, aurrera atera gara beti inguruan izan zaituztegun lagunoi esker.

Urte hauetan irribarre mordo batu dugu proiektu honen inguruan, eta pozgarria egin zaigu ohartzea irribarre horiek eskualdeko bestelako proiektu herrikoiei eta parte-hartzaile batzuk zipriritzera animatzen genituela gugandik pasatzen zirenean. Pentsatu nahi dugu beraz, zerbait ongi egin dugula.

Baina denak ez du betirako irauten, eta udaberriko kimu berriei lekua uzteko garaia heldu da.

Gauzak honela, Liherrak eta Eñautek, Kimuak Aisialdi Elkarteak

uztea erabaki dugu. Aurtengoak izango dira gure azken udalekuak. Ez gara behintzat orain arteko ardura mailan arituko Kimuak.

Pozik gaude egin dugun lanaz, eta lekukoa hartuko diguten taldekideei laguntzeko gogoz egongo gara beti. Hamaika saltsatan sartuta ibili diren perrexilek ez dute luze irauten beste saltsa batzuetan sartu gabe, ez dugu saltsarik gabe bizi nahi gainera. Baina proiektu honetan dugun papera beste leku batetik bizitzea tokatzen zaigu orain.

Ohar hau urte hauetan inguruan izan zaituztegun guztioi eskerrak emanez amaitu nahi dugu. Benetan eta bihotzez, eskerririk asko. Ikusiko dugu berriz elkar bideko beste topalekuren batean, bitartean...

GORA KIMUAK!

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

> **Berbaz**

Mari Puy Inzunza (Mañaria, 1968) eta Xabier Ezkauriatza (Bilbo, 1954) | Eliztarra eta abadea |

“Abade baten zeregin bakarra ez da meza ematea; eta, agian, garrantzitsuena ere ez”

Tabira Eliz Eskualdeko parroketan erreferente izango diren pertsonak aukeratu dituzte elizako hainbat ardura hartzeko



> BERBAZ Aitziber Basauri
Tabira Eliz Eskualdeko parroketan — Otxandio, Urkiola, Mañaria, Santa Ana, Andra Maria, San Fausto, Izurtza, Garai, Matiena, Zelaieta, Iurreta eta Berriz— eliztarren erreferente izango diren 17 lagun “komunitateari begirako eta gerorako elizari begirako formazioa” jasotzen ari dira. Parroketako hainbat arduren kargu egingo dira.

Abade eskasia dela-eta eliztarren beharrei erantzuteko bide berriei ekitea erabaki duzue Tabira Eliz Eskualdean ere. Xabier Ezkauriatza: Bai. Hala ere, ez bakarrik abade gutxiago dagoelako. Vatikanoko II. kontziliotik funtsezko zeregina hartu du laikotzak; bestelako estatus eta karisma hartu ditu. Abadeen zerbitzura egon eta haren esanak mantso bete beharrean zeregin bat hartu du, protagonismo bat. Horrek eta abade eskasiak eragin dute bide berriei ekitea. Abadeak gutxitu direla-eta parrokiak itxi egin behar dira? Kristau herriak eskubidea du fedean hazteko, fedea ospatzeko eta herritarrak fedetik zerbitzatzeko. Abaderik ezean, beste bide bat sortu beharko da.

Eliztarrak, laikoak prestatzen hasi zarete otoitzaldietarako. Zein preskuntza mota jasoko dute pertsona horiek?

Mari Puy Inzunza: Parrokia bakoitzak horren erreferente izango diren pertsonak aukeratu ditu. Hori izan da lehenengo pausoa. Formazio prozesua dator gero, eta prozesu horren hasieran gaudela esan daiteke. Denon artean, gure komunitateari begira eta gerorako Elizari begirako formazioa ari gara hartzen.

Zein izango da zuen funtzioa?

M.P.I.: Komunitatearen animatzaileak izango gara. Arduren kargu egingo gara; parrokia handietan zerbitzu pastoral desberdinen koordinazioa ere egingo da.

Hainbat dira ardura horiek. Hala ere, mezarik ematerik ez duzue izango.

M.P.I.: Ez, hori abadearen funtzioa da. Baina, fedea ospatzeko beste era eta aukera asko daude, eta horretan laikoak badugu gure zeregina eta protagonismoa, hartu egin behar duguna. Bai erreferenteok bai komunitateko beste pertsona batzuek ere. Katekesia, ekonomia-arloa, ospakizun edo liturgiak... daude hor. Parrokia

“Komunitatearen animatzaileak izango gara erreferenteak”

“Lau abade gaude hamar parrokiari zerbitzua emateko”

eta herriaren elkarrenganako harremanean, zubi eraikitzean, ere garrantzitsua da erreferenteen protagonismoa: herrian bizi gara eta lan egiten dugu, herriarekin ditugu harremanak... Abadeak gehiago egon dira eliza munduan sartuta, eta gu giza komunitatearen zati ere bagara.

Abade eskasia dela-eta, hainbat parrokiaren ardura hartu duzue abadeok?

X.E.: Bai. Santa Ana (Durango), Mañaria, Izurtza eta Iurretako parrokiaren ardura dut. Parrokia guztietan ez dago lan berdina. Hala ere, sakramentu munduan aba-

dearen presentzia ezinbestekoa da oraindik. Aztertu beharko dena da orain arteko sakramentu mundua ebanjelizazioaren ardatz nagusia den ala ez. Baliteke sakramentu batzuen ospakizuna —adibidez, mezak— murriztu behar izatea, eta beste batzuk martxan jartzea; abade gabeko ospakizunak, esaterako. Oreka bat lortzeko. Abade baten zeregin bakarra ez da meza ematea, eta, agian, garrantzitsuena ere ez. Batez ere, komunioa eta misioa bermatu behar ditugu guk. Gainerakoa ere bai, ahal den neurrian, baina, ez dago gure esku bakarrik, herriaren esku ere utzi genezake.

Eliztarrek mantentzen dituzte hainbat eliza? Adibidez, eliza txikiak.

M.P.I.: Bai. Tokatzen denean dator abadea mezatara. Orduerdi, hogeita minutu lehenago dator, eta badoa. Ez du denborarik. Horregaz bakarrik ez da egiten eliza. Bertan dagoen komunitateak egiten du eliza, eta komunitate horren zerbitzuan ardurak hartzen dituzten pertsonak. Abadea egotea garrantzitsua da, bai, eta dagoen garrantzi eta errespetuagaz hartzen dugu, baina, eliza izate horren barruan beste elementu bat da.

EAEn hiru abadetik bi daude jubilatuta. Lekukoa hartuko duenik falta da?

X.E.: Lekukoa orain arte lez ulertuta, bai. Bizkaian 10 bat abadegai daude; denek ez dute abadetza amaituko. Eskasia gero eta handiagoa da, desoreka itzela da. Bizkaiko elizan abadeen batez besteko adina 60-61 urtekoa da. Elizaren testigua eliztarrek hartu beharko dute, eta batzuk abade izateko gogoia eta bokazioa erakustea! Baina, inportantea kristau herria da.


Bokazioa falta da?

X.E.: Hori batetik. Bestetik, abadetza ulertzeko modua. Askok ez dute zelibatua ulertzen. Eta, orain, pil-pilean dagoen emakumeen abadetza. Eliza katolikoak ez du hori onartzen. Bihar-etzi eztabaidatu beharreko gaiak dira. Baina, ezin dugu gizaldietako matxismoa, abade izateko kontzeptu bakarra hamar urtean irauli. Beti pentsatu dut andreka abade izateko aukera izan behar dutela. Zelibatua aukerakoa izan beharko litzateke.

2002-2008an EAEn 20 abade ordenatu ziren. Ez dira sasoi bateko kopuruak...

X.E.: Ez. Tabira Eliz Eskualdeko 10 parroketan lau abade gaude zerbitzua egiteko. 50eko hamarkadan Andra Maria eta Santa Ana parroketarako bakarrik, bederati abade zeuden. Urte gutxian aldaketa sozial, politiko eta ekonomiko handiak egon dira. Guztiak eragin du.

UDAKO GEHIGARRIA



EKAINAREN 9tik 15era arte

BEZa*

Oparitzen dizugu

Soilik bazkideentzat

**BIZIKLETETAN eta
BIZIKLETARAKO OSAGARRIETAN
eta TERRAZARAKO,
LORATEGIRAKO eta
HONDARTZARAKO ALTZARIETAN**
(mahaiak, aulkiak, etzaulkiak, eguzkitakoak...
egurrezkoak, metalezkoak, erretxinazkoak
eta bestelako materialetakoak)



Zure **EROSKI club**
Txartelean itzuliko
dizugu hurrengo
erosketetarako.



*Kutxatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuen BEZa EROSKI Club txartelean. Adib. %21 BEZ daukan 100€-tik gorako erosketa batengatik 17,35€ sartuko dizkizugu EROSKI Club txartelean. - Fitness bizikletak kanpo. - Sustapen baliouduna EROSKI hipermerkatuetan. - Edozein EROSKI supermerkatutan eta hipermerkatutan truka daiteke, bitxi-dendak, optikak eta zerbitzuguneak barne (auto-ordainketa erreia izan ezik), baita Eroski Bidaietan ere. - Gainerako baldintzak salmenta-puntuak kontsultatu.

Ander Cimas | Bagoaz Bidaiak agentziako arduraduna |

“Nora joan gomendatzea eskatzen didate bezero askok azken aldian”

Bestelako bidaiak esperientziak eskaintzeko zabaldu zuen Cimasek Bagoaz agentzia orain bost dute



> BIDAIAK

Itsaso Esteban
Bost urte bete berri dira agentzia zabaldu zenuela. Bai, maiatzaren 31n bete dira bost urte. Ezagutzen nituen agentziak ez nituen gustuko, eta bestelako aukerak eskaintzeko zabaldu nuen Bagoaz. Sasoi hartan hasi ginen internet gehiago erabiltzen, eta beste ate bat zabaldu zidan horrek.

Zertan aldatu du internetek bidaiatzeko era?

Agentzia konbentzionaletatik aparte, bestelako gauzak bilatzeko aukera ematen du. Nire kasuan, Venezuela izan zen nire kabuz egin nuen lehenengo bidaiak. Ez zegoen hara eraman gura ninduen bidaiak agentziarik, eta niri oso bitxia egiten zitzaidan naturari loturiko bidaiak

maite dituenarentzat paradisua zen herrialde hartara inork bidaiarik ez antolatzea.

Zelan antolatu zenuen bidaiak?

Hango enpresa batez ipini nintzen kontaktuan, Venezuelako hainbat leku bisitatzeko aholkatu zitaden, eta horrela joan nintzen. Hemengo agentzietan, aldiz, “Venezuelara ez, Kolonbiara, ez...” esaten zitaden. Hor hasi zen dena.

Orduan hasi zinen pentsatzen eredu hori eskaintzea jendeari.

Bai, izan ere, uste nuen agentzia estandarrek ez zutela etorkizunik: denek eskaintzen zuten produktu bera, izen eta prezio desberdinetan. Enpresa martxan jartzeko ikastaroa egin nuen Behargintzan, eta han ni-

re ideiarekin posibilitateez egin zituzten aurreikuspenen kontra, hemen nago, pozik.

Zer aurreikuspen egin zuten?

Oso negatiboa zen negozioaren errentagarritasunaren prospekzioa: ez nuen gustuko sektoreko errelitate, sekula lan egin bakoia nintzen arlo horretan zein jendaurrean... “Zoratu ta zaudete”, esan zitaden. Baina, agentzia zabaldu aurretik saldu nuen lehenengo bidaiak, eta ordutik, arratsalde batean uste dut aspertu naizela (barrez).

Zer hasi zinen eskaintzen?

Bidaiatzeko nahiko tradizional eta konbentzionalak ginen euskaldunak nik agentzia martxan ipini nuenean. Bazirudien Salou, Benidorm eta Tenerifez ha-

ratago ez zegoela beste aukerarik. Betiko aukera horiez gainera, eta sarritan prezio berdinean, beste aukera batzuk ere badaudela hasi nintzen erakusten nire bezeroei.

Agentzia estandarretan proposatzen ez dituzten lekuak erakusten dizkiezu, beraz?

Bai, baina ez da bakarrik leku alternatiboen eskaintza. Bidaiak mota da: neure esperientziatik abiatuta, bezero bakoitzarentzat neurritan pentsatutako bidaiak dira, tokian tokiko enprekin harreman zuzena eginda. Bidaiaren kalitateak gora egitea eta prezioak behera egitea lortzen duzu, horrela.

Elkarrizketa hau egin osteko egunean Karibera zoaz.

Bai. Bi egun egingo ditut hotelak bisitatzeko, eta gero, hiru-lau egun hartuko ditut neuretzat. Hona bueltatuta, herrialde bakoitzean eduki dudako esperientzia kontatzen diet agentziara datozen bezeroei, eta proposamena egokitzen diot bezero bakoitzari. Oso lan polita da: jendea irribarrez sartzen da bulegoan, pozik doa bidaiak, eta irribarrez bueltatzen dira.



Bere esperientziatik abiatuta antolatzen ditu Cimasek bezeroentzako bidaiak.

Funtzionatzen du sistemak.

Bai, esan dezaket funtzionatzen duela. Bezeroekin hitzordua egiteko, astebeteko itxaron-zerrendak edukitzen ditut, behe-denboraldian ere bai. Hitzordua egiten duen ia %100ek kontratatzen du bidaiak nigan, eta bost urtean erreklamazio bakarria ere ez dut izan.

Zure proposamenak onartzeko prest egoten da jendea?


Hasiera batean Teneriferako bidaiak prestatzeko eskatuz etortzen zitzaidan jende askok nora joan gomendatzea eskatzen didate azken aldian. Eta konfiantza osoa dute nigan. Esaten didate: “Honako aurrekontua daukat: nora joan naiteke?”. Horrek egiten du nire lana dibertigarri eta sortzaile, eta denbora guztian jendearekin har-tu-emanen egoteak.

Bestela egingo ez zituen bidaiak egin ditu jendeak zure gomendioari jarraituta.


Bai. Eta bidaiatzen asko ibili bakoia zen jendea ohartu egin da zelako esperientzia izan daitekeen bidaiatzeko. Unibertsitate-rik onena da bidaiatzeko.

Durungaldeko bezeroak dira daukazun gehienak?


Lehen bi urteetan horrela zen, baina orain, Gipuzkoa, Burgos, Zaragoza eta Madrilgo bezeroak ere badauzkat. Ahoz aho zabaltzen dute Bagoaz nire bezeroek, eta horrek erakartzen ditu bezero berriak.



TXINA (Gullin)



Dominikar Errepublika



Txinurrisolo, 6 beheha · Matiena (Abadiño)
Tel.: 944 657 577 · Mug.: 639 346 506

www.bagoaz.com

NEURRIRA EGINDAKO BIDAIK



Euskara hizkuntza zentrala dela, giro onean hartuemanak estutzeko balio dute barnetegi ibiltariak.



Iazko ibilbideko une bat Sorginetzeko trikuharria (Arrizabalaga, Araba).



Aurten mendi gutxiago igoko dituzte, eta itsaso ingurutik ibiliko dira.

Kostaldekoko herriak eta hondartzak ezagutuko dituzte aurten oinezko AEK Ibiltarian

Aurten AEK Barnetegi Ibiltariko ibilbideak eraberriturik datoz; oinezkoan, mendiak kostaldeagatik aldatu dituzte

> AEK J.Derteano

AEK Barnetegi Ibiltaria nobedade askogaz dator aurten. Bai oinezkoan bai bizikletazkoan, ibilbideak erabat berritu dituzte. Aurtengoak ere ez dira nolanahikoak izango gogortasunari dagokionez, baina orain artekoak baino eramangarriagoak dira, eta, zelanbait, tentagarriagoak. Oro har, mendiak kostaldeagatik aldatu dituzte, eta itsasoak eskaintzen dituen askotariko aukerak aprobetxatzeko prest daude.

Orain arte, ibilbide antzerakoak izan dituzte urtero: menditsuak, GR 12a ardatz hartuta: "Anboto, Gorbea, Aizkorri... batzuk beldurtu egiten ziren ibilbideak karteletan ikusterakoan. Aurten, hori dena zelanbait aldatzea erabaki dugu", dio Asier Arroita AEK-ko kideak.

Oinezko ibilbidean, Euskal Herria mendebaltik ekialdera zeharkatuko dute, kostaldetik. Uztailaren 16an Muskizen hasi, eta 31n amaituko da, Lapurdiko Kanbon. Itsasoko kresala bide-lagun, 20-25 kilometro egingo dituzte egunero, eta Euskal Herriko hondartza eta kala asko ezagutzeko eta eurretan bainuak hartzeko aukera izango dute.

Ohi baino herri gehiago ezagutuko dituzte. Orain arte, mendietako aterpetxeetatik herrira noizerik noizera jaisten ziren; aurten, ibilaldiko egun denetan kostaldean hartuko dute ostatu. Udan herrietan izaten den jaigiroa ere aprobetxatu eta bizi gura dute. Horrela, hainbat herritako jaiak ezagutuko dituzte.

Aurten atsedeen egun bat izango dutela da oinezko ibilbideak dakarren beste nobedadeetako

Atsedeen egunak daude, eta etapa bat itsasontsiz egingo dute

Hainbat herritako jaiak ezagutu eta biziko dituzte ibilbidean zehar

bat. Uztailaren 23an izango da, Lekeitio. Bizkaiko kostaldeko herri honetan emango duten eguna batean ibiltzeko aprobetxatuko dute, besteak beste.

Uztailaren 28an Pasaia eta Hondarribia lotuko dituen etapa ez dute atsedeen egun moduan sailkatu, baina horixe balitz lez hartuko dute: herri batetik besterako biderik gehiena (15 bat

kilometro) itsasontziz egiteko asmoa dute.

Oinezko barnetegi ibiltarian izena emateko azken eguna uztailaren 6a izango da: ibiltaria@ae.org. Ibilaldiak 530 euro balio du, eta horren barruan ostatuak, jatorduak eta furgoneta laguntzailea (traste denak eramateko) sartzen dira.

Bizikletako ibilbidea

Oinezko barnetegi ibiltaria amaitzeagaz batera, bizikletazkoa hasiko da. Aurtengo ibilbideak Deba eta Etxarri Aranaz lotuko ditu, uztailaren 30etik abuztuaren 14ra. Batez beste, 65 kilometro egingo dituzte egunero. Bizikletako ibilbidea ere berria izango da aurten: Urdai-baiko biosfera, Bizkaiko Zubia (Portugaletze), Oliteko Gaztelua, Matxixako lurmuturra, San

Juan Gaztelugatxekoa, Urbasa, Irunberriko eta Arbaiungo arroilak, Omako basoa eta Erronkariko haranak ezagutzeko aukera egongo da, besteak beste. Hiru-lau etapa kostaldetik gertu egingo dituzte.

Otxandiotik ere igaroko da. Abuztuaren 2ko gaua bertan emango dute, eta hurrengo egunean Ataunerantz abiatuko dira.

Barnetegi honek ere 530 euro balio du, eta oinezkoaren helbide elektronikoa bera erabili daiteke izen-ematea egiteko.

Barnetegietan ez da euskara klaserik egongo, baina hizkuntzarekin lotutako hainbat ekin-tza egingo dituzte. Esaterako, tokian tokiko hiztunekin hartuemanetan jarriko dira, euskalki desberdinak ezagutzeko eta askotariko jardueretan parte hartuko dute.

ikasi eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko

UDAKO ESKAINTZA 2016
CURSOS DE VERANO

DURANGALDEKO AEK

DURANGON 94 681 73 49 / abarrak@ae.org · ELORRION 94 658 21 11 / abizari@ae.org
ZORNOTZAN 94 673 43 70 / zornotza@ae.org / zaldibar@ae.org
abadino@ae.org / berriz@ae.org

EUSKALTEGIAK
ON-LINE IKASTAROA
ERE BAI!

2 ASTEKO BARNETEGIAK

FAMILIA BARNETEGIAK

BARNETEGI IBILTARIAK

673 200 100 · 946 464 000 www.aek.org

Garraibidea ostatu hartuta, turismoa egiteko beste modu bat

Turismoa egiteko modu honek askotariko aukerak eskaintzen ditu, eta geroezina dela ematen du. Oporrak norberaren erritmora disfrutatzeke aukera ematen du furgonetak



Gaur egun, furgonetan bidaiatzen duten gehienek eskuratze-maila ertaina dute, eta urtean hainbat egunez bidaiatzen dute.

> GARRAIOBIDEA OSTATU A.B.

Gorakada izan du furgonetan erabilerak oporretan joateko. Asko dira turismo mota honen aldeko hautua egiten dutenak: espazio txikian, bidaiatzerako orduan beharrezkoa den guztia batzen du eta; garraioa eta ostata eskaintzen ditu furgonetak.

Esperientzia berezia da batzuentzat furgonetan bidaiatzea. Gainera, askatasun itzela ematen du oporraldia non eta noiz egin erabakitzeko. Horrek kargatzen ditu gehien hautu hau egiten duten bidaiariak. Ostatu eta guzti bidaiatzeak aukera paregabea ematen du horrenbeste planifikatu gabe bidaiatzeko. Merkeagoa eta inguruagaz hartuemanean, gainera. Turismoa egiteko modu honek askotariko aukerak eskaintzen ditu, eta geroezina dela ematen du. Azken urteetan, prestatutako camper furgoneta hauen zein autokarabanan salmentak gora egin du; baita alokairuak ere. Hala ere, aspaldi aurrea hartuta daude Europako gainerako herrial-

Garraibide hauek mimoz zaintzen dira, hobekuntzak eginez

Furgonetazale amorratuentzat bizi ikuskera da horrela bidaiatze

deetan: Frantzia, Erresuma Batuan, Portugalen edo Italian. Urte asko dira herrialde hauetan turismo ibiltari honen jarraitzaile direla.

Zaharkitutako usteak

Furgoneta bidaietarako erabiltzea zaharkituta geratu den ustea atzean geratu da. Baita baliabide gutxiko pertsonen hautua den ustea ere. Gaur egun, camper furgonetan bidaiatzen duten gehienek eskuratze-maila ertaina dute, eta urtean hainbat egunez bidaiatzen dute.

Salbuespenak salbuespen, turismo arduratsu eta jasangarria da bidaiatzeko camper furgoneta erabiltzen dutenena, ingurumena errespetatzen duena. Izan ere, gehienek horretarako egokitutako lekuetan egiten dute gaua, eta ezagunak egiten zaizkie aparkatzearen eta lo egitearen desberdintasunak.

Mimoz zaindutako etxea

Mimoz zaintzen dira ostatu diren garraibide hauek. Aldiro hobekuntzak gehituz, han-hemenetik lantxoak eginez, hartara, leku txikiak handi bihurtu nahirik. Sukaldea, berogailua, komuna... bakoitzak premien arabera atonduko du etxea, aldi berean, egunerokotasunerako ibilgailu ere izango duena.

Oporrak beste era batera, norberaren erritmotan disfrutatzeke aukera ematen dute furgonetek. Bizitzaren ikuskera bat da furgonetazale amorratuentzat furgonetan edo autokarabanan bidaiatzea. Bidaiatzeko era horren jarraitzaile sutsuak dira.



Bakoitzak bere premien arabera atontzen du oporraldian etxea izango duena.



Ostatu eta guzti bidaiatzea aukera bikaina da bidaiari hainbeste ez planifikatzeko.

ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia
Tel.: 946 202 004 Faxe: 946 200 998
alluitz@otola.org · www.alluitzmotor.com



<< PLAZAREN PLAZERA >>



AI AMA

Jose Miel Barandiaran,
2 behea
Durango

Gozatu gure terraza,
eta gure gin tonic eta
konbinatuen eskaintza
zabala. Baita gure
kafe kartaren eskaintza
bikaina ere.



ASTEI JATETXEA

Muniketa gaina,
Bizkaiko begiratokira bidean
Muxika
Tel.: 946 732 318

Gure terraza naturaren
estilismoaz eta lasaitasunaz
gozatzeko lekua
duzue; jatordu bat zein
trago batzuk hartzeko
aukerarekin.



BODEGUILLA

Traña-Matiena
Tel.: 946 814 385

Terrazan zein barrualdean,
razio eta ogitarteko ezin
hobeak aurki ditzakezu!
Erdi Matiena auzora, ez
zara damutuko!



ERROTA

Intxaurrondo kalea, 54
Durango
Tel.: 946 216 021

Taberna zabalik dago
07:00etatik 23:00etara.
Besteak beste, gosariak,
pintxoak, entsaladak,
eta ogitartekoak eskaintzen
ditugu.
Terraza ederra, Tabira
auzoaren erdigunean.



HOTEL OLAJAREGI

Kurutziaga, 52 - Durango
Tel.: 946 200 864

Hotel Olajaregik terraza
irekiko du tabernarekin
ekainaren 20tik aurrera.
Etor zaitetz gurera eta
dastatu terrazan
eskainiko ditugun afariak!



NAPOZT

Josemiel Barandiaran,
8 behea - Durango
Tel.: 946 004 086

Ez dugu udarako terrazet
gozatzea baino plan hobirik
ezagutzen! Hemen duzue
Napozt bere pintxoekin,
edariekin eta razioekin
gozatzeko! Udan gainera,
terraza 01:00ak arte zabalik!



PLATERUENA

Landako etorbidea, 4A -
Durango
Tel.: 946 030 300

Uda honetan Plateruenako
doako terraza zerbitzuaz
gozatu: razioak, etxeko
irabiatuak, izozkiak... aurten
asteaz zehar zabalik terraza
gaueko 23ak arte.



ZERO

Andra Maria, 6 - Durango
Tel.: 946 812 222

Terraza paregabea
Durangoko Alde Zaharraren
bihotzean. Etor zaitetz gure
Gourmet errazio bereziak
dastatzera astelehenetik
ostiralera 12:00etatik
16:00etara. Afariak
astelehenetik ostiralera.



Zikin Eguna antolatuta zuten iaz.



Udan Olgetan Behargintzaren eraikinean antolatuko dute.

Lau pertsona, udalekuetako esperientzia bizitzeko lau modu

Adeik, Arratek, Lorek eta Garazik Berbarok antolatutako udalekuetan parte hartuko dute

> BERBARO Jone Guenetxea Abenturaz betetako uda zain dute Adei Real de Asuak (6 urte), Arrate Barbarias Unzillak (9 urte), Lore Otaolea Arrietak (15 urte) eta Garazi Ojanguren Kajarabilek (18 urte). Berbaro euskara elkarteak antolatutako udalekuetan bakoi-tzak bere erara biziko du uz-taila. Udan Olgetan udaleku finkoetan, Mendigorrian zein udaleku ibiltarian, ahaztu ezineko esperientzia bizitzeko prest daude.

Adei, prest zaude Udan Olgetan udalekuetarako?
Adei Real de Asua: Bai, prest nago. Aurreko urteetan ere joan naizenez, ezagutzen ditut udalekuak. Gelako beste lagun batzuk ere joaten dira, eta bertan lagun berriak ere egiten dira.

Zer da orain arte gehien gustatu zaizuna?
A.R.A.: Marrazkiak egitea asko gustatzen zait. Iaz, esaterako, Donostiako Aquariumera joan ginen, eta oso ondo pasatu nuen. Bertan marrazoak ikustea izan da gehien gustatu zaidana. Beste egun batean, olibadun pizza ere egin genuen, eta oso dibertigarria izan zen.

Udan Olgetan udalekuetako zure azken urtea izango da hau, Arrate. Mendigorriara ere bazoaz.
Arrate Barbarias: Bai, Udan Olgetaneko azken urtea izateak pena apur bat ematen dit. Izan ere, oso ondo pasatzen dugu.

Zein da gehien gustatzen zai-zun ekintza?
A.B.: Ur jolasak, zalantzarik ba-

Udan Olgetanera, Mendigorriara edo udaleku ibiltarira joango dira

rik. Xaboiagaz eta uragaz bus-titako plastiko bat jartzen dute, eta oso ondo pasatzen dugu. Uretan gominolak topatzea ere oso dibertigarria izaten da. Irteerarik gustukoena Aquariumekoa izan da. Adeigaz ados nago, bai.

Aurten, Mendigorriara joango zara. Irrikitan zaude? Urduri?
A.B.: Bai, ikastolatik ere joaten gara kanpora lo egitera. Gainera, iaz ere joan nintzen. 11 egun diren arren, labur egiten da. Lagun asko joan ginen, eta han ere lagun gehiago egin genituen. Zikin Egunera jolasten gara, eta

mangerarekin ere ur-jolasak egiten ditugu.

Lore, zu udaleku ibiltarrietara joango zara. Kilometro batzuk oinez egiteko prest al zaude?
Lore Otaolea: Bai. Gainera, geuk prestazten dugu irteera. Puntu batetik irten, eta ibilbide guztia oinez egiten dugu. Nafarroatik abiatu, eta Gipuzkoaraino joango gara. Egun batean, gehienez, sei ordu ibiltzen gara. Batzuetan, ordu erdi ere bai. Gaua gazteteetan, eskoletan zein frontoietan pasatzen dugu.

Joateko irrikaz zaude?
L. O.: Bai, iaz bikain pasatu genuen, beraz, aurten ere joateko gogotsu gaude. Ez nuke gauza zehatz bat esango. Dena da polita. Iaz eguraldi ona egin zigun,

eta ea aurten ere eguraldia lagun dugun.

Parte-hartzaile izatetik begirale izatera pasatu zara, Garazi. Garazi Ojanguren: Aurten begirale ikastaroa egin dut, eta Mendigorriara joango naiz praktikak egitera. Arrategaz egongo naiz, beraz.

Aurten prestaketetan parte hartzea egokitu zaizu. G.O.: Urte osoan zehar ikastaroa egin dudanez, prestaketa batzuk eginda daude. Gainera, aurreko urteetatik programazio zati handi bat prest dago.

Joateko gogoz zaude?
G.O.: Bai. Gogoratzen dut uz-taila heltzeko irrikitan egon naizela beti. Gure sasoiaren, Mendigorriara beharrian, Gorozikara eta Zugastietara joaten ginen. Eta ibiltarian ere oso ondo pasatu dugu, Euskal Herri osotik.

Zein izan da gehien bete zaituen esperientzia?
G.O.: Gipuzkoako kostaldetik egin genuen ibiltaria azpimarratuko nuke.

Club Hípico
Dukiena-BERRIZ

www.dukiena.com
 Eitua auzoa, z/g - Dukiena baserria BERRIZ - Tel.: 652 745 832

UR urdaibai
 Turismo aktiboa eta abentura

Kanoa/Kayak **Coasteering**

Tel.: 94 627 66 61 · 688 635 190
www.urdaibai.com · info@urdaibai.com

Adin bakoitzaren neurriko abenturak gozagai, aurten ere, Kimuak aisialdi elkarteko udalekuetan

Gaztetxoek udaleku finkoetatik nagusien ibiltarietara, askotariko adinei begirako eskaintza osatu dute aurten ere.



Mendirako irteerak izaten dira udalekuetako eskaintza zabaleko ekimen bat. Kimuak



Jolasak, hondartzarako irteerak... gazteen arteko hartuemanak sendotzeko baliagarriak dira. Kimuak

> KIMUAK J.D.

Iurretako Kimuak Aisialdi Elkartek udalekuen eskaintza zabala eskaintzen du urtero. Finkoak, ibiltariak, bien artekoak... Adinean aurrera egin ahala, esperientzia eta erronka berriak bizitzeko aukera izaten dute parte-hartzaile gazteek. Aldi bakoitzeko esperientziak lagunduta, urterik urtera fintzen joan diren eskaintza da.

Aurten ere, udalekuen zakua ondo beteta dakarte. Lau antolatuko dituzte. Udalekuen esperientzia lehenengoz biziko dutenei zuzenduta, udaleku finkoak Ozaetan (Araba) egingo dituzte, ekainaren 30etik uztailaren 6ra. Inguruko urtegi bizikletan joan, eta bainu bat hartuko dute, esaterako. Askotariko tailerrak (txotxongilo tailerra, ukendu tailerra...) ere izango dira.

Udaleku finkoetatik datozen gaztetxoek hurrengo urratsa udaleku finko-ibiltariak dira. Udaleku finkotik ibiltarirako saltoa leundu guran, tarteko eredu honegaz lanean hasi ziren orain bost urte. Horrela, uztailaren 8tik 11ra, Ozaetan lau egun eman ostean abiatuko dira Bergararantz, bidean Leintz Gatzaga, Eskoriatza edo Arrasate herriak ezagutuz, besteak beste. 2004 eta 2005 urteen arteko bideratuta dago.

Udaleku Ibiltari Txikiak dira abenturazale gazteen hurrengo geltokia. Udaleku finkoak baino aukera zabalagoa eskaintzen du abenturarako, baina Ibiltaria baino etapa laburragoekin. Aurten, bigarren hezkuntzako lehenengo maila bietako gazte-txoei bideratuta dago. Iaz Bizkaiko kostaldea ezagutu ostean, aurten Gipuzkoako kostaldean (Deba-Lezo) emango dituzte uztailaren 8tik 17ra arteko egunak. Hondartzarik hondartza bainuak hartzeaz gainera, ur-kirolak probatzeko aukera izango

dute gazteek, surfa eta piragua besteak beste.

Azkenik, udaleku ibiltaria Kimuak elkarteko klasikoa da: urterik urtera eta apurka-apurka zailtzen joandako gazteen azken erronka. Urtero Euskal Herriko herri, auzo, eta mendi asko ezagutzeko aukera eskaintzen du. Aurtengo lehenengo etapa bietan, aurretik egon gabeko paisaia ezagutuko dute: Arabako Iparraldea, Nerbioiko ur-jauzian hasiko duten etapagaz.

Udaleku ibiltarietan gazteek paisaia berriak ezagutuko dituzte aurten

Aiartzaguena anaien azkenengo udalekuak izango dira

Erreleboaren atarian

Aurtengo udalekuak bereziak dira, sortu zenetik hona ekime-neko sustatzaile nagusiak izan diren Liher eta Eñaut Aiarzaguena anaien azkenak izango direlako. Erreleboa emateko sasoia dela uste dute: "Aurreantzean ere, esku bat botatzeko prest egongo gara, jakina, baina ez gu lehen lerroan tiraka aritze-ko", dio Liher Aiarzaguena.

Urtero 40-50 bat begirale baten dira udalekuen harira. Talde zabal horretatik "udalekue-tatik tiraka jarraituko dutenak irtengo diren esperantza badugu". Ilusioa, behintzat, ikusten dute: "Aurten gauzak zelan egingo diren gertutik ikasi beharko dutela komentatu dute batzuek, gero, hurrengo urteetan, eurek egiteko eta... bai, badugu esperantza".




Zelai Alai
HIPIKA ESKOLA

KANPAMENTU HIPIKOA 2016

Gaztañatzaga azuza, z/g
IURRETA - Tel.: 691 746 611

1
10:00-14:00
EGUN BAKARRA
39€

2
10:00-14:00
ASTE GUZTIA
A/O
190€

3
ASTE GUZTIA LOTARA
GELDITUTA, DENA BARNE

- Egunero bi ordu ekitazio, ibilaldiak eta zaldizko jolasak.
 - Ordu bete teoria eta tipologia ezagutzak.
 - Kontzeptu hauen aplikazio praktikoa ordubetez.
 - Gosaria, bazkaria eta afaria.
 - Ur beroko dutxa eta bainugela egokituak.
 - Eskolan bertan gaua igaro literadun gela batean.
- 490€



Ikastaroetan parte hartzea ere probetxuzkoa izan ahal delako uda sasoiari

Hainbat lagunek ematen dute izena udako ikastaroetan

> IKASTAROAK M.O.

Udaren etorreragaz batera opor usaina nabari da jendearen go-goetan. Atsedena, leku berriak ezagutzeko, ikasturte berrirako indarrak hartzea... Helburu ugari izaten dira opor egunetarako. Baina, uda sasoiari aprobetxatzeko modu asko daude, eta heziketan sakontzea da eurretako bat. Hainbat lagunek ematen dute izena hizkuntza akademietan, unibertsitateetako ikastaroetan edota kultur jardunaldietan.

Ingelesa, intentsiboan

Ingeles mailari bultzadaxo bat emateko aukera ona izaten da uda. Gero eta gazte gehiago joaten dira atzerrira ingelesa praktikatzeko asmoz, urteetan zehar klasean ikasi dutena errealitatean lantzerako. Bestalde, ikasketa teorikoan sakontzea ere bada beste aukera bat; udako denbora librea aprobetxatuta, ikastaro intentsiboetan inbertitzea.

Horretarako eskaintza daukate, adibidez, Durangoko Pym's eta Cris, Elorrioko On-track eta Abadiñoako Red Hill akademietan. Aste gutxiren

buruan, ingeles maila indartuta ikusiko dute bertaratzen diren ikasleek. Azterketaren bat egiteko asmoa dutenek ere prestakuntza lantzeko tresna moduan ulertu dezakete.

Artistentzat

Artista sena atera edo elikatzeke ez da sasoi txarra udakoa. Horretaz jabetuta, ikastaro bereziak antolatzen dituzte Du-

Ingeles maila indartuta ikusiko dute bertaratzen direnek

Ikastaro bereziak antolatzen dituzte Kurutziaga akademian

rangoko Kurutziaga arte akademian. Uztailea erabiltzen dute saioetarako: "Uztailean, goizez eskaintzen ditugu saioak, urtean zehar akademian ez daudenek zer den ikusi ahal izateko" adierazi dute arduradunek. Astelehenetik eguaztenera bitartean izaten dira, eta programazioa ez da itxia. "Nahieran egin ahal dira ikastaroak, bai orduetako bai arloei dagokienez". Marrazten edo sortzen ikasi gura duenak ez dauka ezetz esateko aitzakiarik, beraz.

Kurutziaga akademiako udako ikastaroetan izena eman gura duena akademiatik bertatik pasa daiteke, edo, bestela, telefonoz deitzea ere posible dela adierazi dute hango arduradunek.

Haurrek zein helduek parte hartu dezakete, adin mugarik barik.

Unibertsitateen aukera

Unibertsitateek udarako eskaintza proposatzen dute. Ikasleek, ikasturtean landutako gaiak osatzeko aprobetxatu ditzakete ikastaroak, baina lanean daudentzat ere bali-

PYM'S IDIOMAS
SINCE 1974

INGELES-IKASTARO TRINKOAK
www.pymsidiomas.com

Jatorrizko irakasleak
Tel.: 946 815 677

Cambridge English
Exam Preparation Centre

ONTRACK
HIZKUNTZA ZERBITZUAK

Berriotxoia 18, Elorrio
TEL: (+34) 94 658 46 73
WEB: www.ontrackenglish.com

2016-2017 KURTZORAKO IZEN EMATEA ZABALIK

ENGLISH SUMMER CAMP IN ELORRIO

Ekainaren 27tik uztailearen 22ra

7-14 urte bitartekoentzat
Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 13:00

15-18 urte bitartekoentzat
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00 / 15:00 - 17:00

Zubibitarte, 11 etxabea ezkerrean
MATIENA, ABADIÑO (Jata-ren parean)
946 814 282 • 606 757 720

GEHIENEZ 5 IKASLE IKASGELAKO

REDHILL Language school

www.redhilllanguages.com

CRIS ACADEMIA

CAMBRIDGE ENGLISH
Language Assessment
Authorised Centre

UZTAILEAN IKASTARO TRINKOAK

- Ingeles maila guztiak: KET, PET, FIRST eta ADVANCE.
- Cambridgeko azterketa ofizialak prestatzen lagunduko dizugu; Durangaldeko zentro ofiziala gara.
- Zabalik 2016-17 ikasturterako matrikula epea.
- Ordutegi malgua.
- Emaitzarik onenak lortuko dituzu.
- Ikastaroak atzerrian, eta ingelesa ikasteko udalekuak Espainian Stepe-egaz.

Musiko Altuna, 11. behea
48200 Durango
Tel.: 606 358 929

MATRIKULARIK GABE



Uztailean artista sena ateratzeko aukera egongo da Kurutziaga arte akademian.

garri izan daitezke; izan ere, formakuntza unibertsitarioak ez du zertan gazte denboran bukatu. Udako Euskal Unibertsitateak Eibarren, Baionan eta Iruñean antolatuko ditu saioak, ekain eta uztaile bitartean; horietako batzuk hasita daude jadanik. Guztira, 7 jardunaldi eta 23 ikastaro izango dira, euskaraz.

Giza eta gizarte zientziak, ingeniariak, teknologia eta zientzien ataletan banatuta daude. Besteak beste, euskararen biziberritzea, haurren transexualitatea edota sendabelarren tradizioa izango dira gaietako batzuk.

Inskripzioa martxan dago, eta aukeratutako ikastaroa hasi baino astebete lehenago amaituko da.

UEuk Eibarren, Baionan eta Iruñean antolatuko ditu saioak

EHUn 145 ikastaro eta 26 kongresu prestatu dituzte uda honetarako

145 ikastaro EHUn

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateak ere garatzen du udako unibertsitatea, eta eskaintza oso zabala aurkeztu du, euskaraz eta gaztelaniaz banatutako saioekin. Denera, 145 ikastaro –euretatik 7 Internet bidez– eta 26 kongresu prestatu dituzte udarako, ekain eta iraila bitartean.

Matrikulatu gura dutenek, www.uik.eus atarian dute informazioa.

Kirola, gaztetxoek eskura

Kirol arloan lan egiten duten elkarte ugari ere zabalitzen dute eskaintza udarako, beste eredu bateko udalekua proposatuz. Horrela, kirol ugari daude gaztetxoek eskura: futbola, saskibaloia, pilota... Norbere gustuaren arabera praktikatzea posible da.

“Iaz arrakasta” eduki zutela-eta, aurten ere esku pilota eta kirol aniztasun udalekuak antolatzea erabaki dute Durangaldean, ekainaren 27tik uztailearen 22ra. Tornosolo eta Durango eta Abadiñoko pilota eskolak dira hauen antolatzaileak, eta Durangaldeko Amankomunazgoak laguntzen du egitasmoa. Bertan, 8 eta 14 urte arteko gaztetxoek parte hartuko dute. Esku pilotaren ezagupen osoa eta modalitateak jokatzeko gainera, beste kirol batzuk praktikatzeko aukera izango dute umeek; hala nola, atletismoa, txirrindularitza, mendia...



Denetarikoko ikastaroak eta kongresuak egongo dira EHUn.



UEUren udako ikastaroak ekainean eta uztailean izango dira.

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA **Matrikula zabalik!**

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA



soinua

Kalebarrria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net

KURUTZIAGA **ARTE EDERRETAKO** **AKADEMIA**

Uztailean ikas ezazu margotzen!



Helduentzako ikastaroak

IKASTARO BEREZIAK!

Eskatu informazioa eragozpenik barik

Tel.: 946 030 527 / 678 657 676

www.akurutziaga.com

Kurutziaga, 24 DURANGO



Haurrentzako ikastaroak



Zuragaz eta lastoagaz, autoeraikuntza sistemagaz eraikitako bungalow-ak dauzkate Arbizuko kanpinuean.

Arbizuko kanpineko oporrak: natura errespetatuz gozatzeko proposamena

Nafarroako Sakana eskualdeko Arbizu herrian, Aralar eta Urbasa artean kokatua dago eko-kanpina



Tratamendu kimikodun ohiko igerilekuaren ordez, laku naturala atondu dute.



Naturagaz kontaktuan, lasaitasuna bilatzen dutenentzat aukerako lekua da.

> NATURA Itsaso Esteban Oporretarako lasaitasuna eta naturagaz kontaktua bilatzen duenak ez du urrutira joan beharrik horretarako leku aproposa bilatzeko. Nafarroako Sakana eskualdeko Arbizu herriko kanpina aukerakoa izan daiteke. Aralar eta Urbasa mendilerroen arteko bailaran dago kokaturik Arbizuko kanpina; Andia, Urbasa, Aralar eta Beria in mendiak inguruan izanik, horietara ibilaldiak abiatzeko leku aproposa izan daiteke, esaterako. Mendizale eta kirolarientzat, gainera, Nordic Walking ikastaroak ere eskaintzen dituzte, kanpinuean bertan.

Sentsibiltate eta konpromiso ekologikoan oinarrituz eraikitako azpiegiturak dauzka Arbizuko kanpinak: bio-eraikuntza, jasangarritasuna, bioklimatismoa eta energia berriztagarrien erabilera praktikan ipintzen dituzte. Adibidez, energia elektrikoaren kontsumoaren zati

Sentsibiltate eta konpromiso ekologikoan oinarrituta

“Inguruagaz jasangarria den turismoa” bultzatu gura dute Arbizun

handi bat haizearen indarra baliatuz lortzen dute.

Arbizuko kanpinuean hartzen dituzten bisitariak Sakanako balio natural eta paisajistiko handiko inguru hori gozatu eta errespetatzea proposatzen diete. “Kanpina kokatuta dagoen inguruagaz iraunkorra den turismo mota bat bultzatu” gura izan dute hasieratik.

Zuragaz eta lastoagaz egindako bungalow bioklimatikoak dira kanpineko eraikuntzak:

bertako material naturalak baliatuta eraikitakoak, eta isolamendurako oso ezaugarri aproposak dituztenak. Autoeraikuntzaren filosofiagaz atondu dituzte kanpineko azpiegitura horiek, eta bezeroei autoeraikuntzaren inguruko tailerretan parte hartzeko aukera ere eskaintzen diete, material naturalen erabileraren aukerak erakusteko.

Bezeroek lantzeko aukera duten ortu bat ere badaukate Arbizuko kanpinuean

Gizakiaren urtetako jarduren ondorioz deforestatutako bailara batean kokatuta dago kanpina, eta, alde horretatik ere, eragin positiboa eduki gura dute kanpineko arduradunek: zuhaitzak eta fruta-arbolak landatuz ingurua basoberritzen laguntzen dabilta. Bestalde, berezok ere lantzeko aukera duten ortua ere badaukate, eta sendabelarrak ere landatzen dituzte, horien onuren inguruan ere bisitariak ohartarazteko.

Laku naturala

Silize, harri eta hareagaz laku natural bat ere sortu dute Arbizuko kanpinuean, eta bertan bainua hartzeko aukera dute bezeroek. Leku gehienetan gailentzen den igerilekuen tratamendu kimikoen aurrean, baliabide naturalen erabileraren alde egiten dute Arbizuko kanpinuean.

Yoga zentroa

Inguruko mendietara txangoak abiatzeko leku aproposa ezezik, naturagaz kontaktuan erlaxatzeko aukera ere bada Arbizuko kanpina. Lakuan bainua hartuta edo belartzan etzanda ezezik, yoga praktikatzeko erlaxatzeko bidea ere eskaintzen dute Arbizun. Yoga zentro bat daukate, eta hainbat maila eta modalitateko yoga klaseak eskaintzen dizkiete kanpineko bezeroei. Zentro horretan, urte guztian zehar antolatzen dituzten yoga tailerrak ezezik, konferentzia eta ikastaro bereziak ere egiten dituzte.



ARBIZUKO EKOKANPINA

www.campingarbizu.com

Tel.: 848 470 922

Jatetxerako erreserbak: 635 093 140

Inguruaz gozatzeko leku zoragarria. Azken partzelak bioklimatikoentzat. Urbanizazio berria martxan.



Larraitz Zabala (Iurreta, 1989) | Biologoa |

“Esperientzia bizi, eta ahal dudan guztia ikasteko irrikitan nago”

Hiru hilabetez Kenyako nekazariei laguntzen ibiliko da Larraitz Zabala gazte iurretarra

> ELKARRIZKETA M.Zuazubiskar Begirale lanetan urte askoan aritu den Larraitz Zabala uda desberdin bat du aurretik aurtengoan. Iurretarrak Eusko Jaurlaritzako programa bategaz bat egin du, eta hiru hilabeterako Kenyara joango da koperante lanak egitera.

Nola bururatu zitzaizun koperante moduan Afrikara joatea?

Urte batzuk neramatzan Eusko Jaurlaritzako programa honetan izena eman guran. Orain dela pare bat urte, koadrilako bat joan zen, eta iaz, koadrilako beste bat eta lehengusina. Nik ere orduan joatea gura nuen, baina, master bat egiten nengibilen, eta udalekuetara joan beharra ere baneukan. Beraz, beste urte baterako uztea erabaki nuen, eta

azkenean heldu da joateko unea.

Uztail hasieran hiru hilabeterako joango zara, ezta?

Bai, hori da. Eusko Jaurlaritzak proiektu ezberdinak ateratzen ditu euskal gazteria sentibilizatzeko asmotan. Eta, hautaketa prozesu guztiak pasatu ondoren, esan dezaket uztailaren 5ean Kenyara joango naizela.

Herrialde ezberdinak eta proiektu ezberdinak dituzte. Zein lanetan ibiliko zaren esan dizute?

Bai, hainbat proiektu daude eta niri nekazaritza ekologikoaren inguruko proiektua esleitu didate. Esan didatenez, kenyar askok ortuan lan egiten dute, eta asmoa beraiei laguntzea da, sortzen duten hori ekologikoa izan dadin.

“ Kenyako nekazariei laguntzea izango dugu helburu bidaia honetan”

Espero zenuen proiektu horren parte izatea?

Egia esan, ez nekien zein proiektu emango zidaten. Esan ziguten gure ikasketa eta esperientziekin lotutako zerbaitetan arituko ginela. Urte dezentez begirale lanetan ibili naiz, eta horregaz lotutako zerbait izan zitekeela uste nuen. Baina, beste alde batetik, biologoa naiz, eta biodibertsitate masterra ere egin da daukat. Beraz, nire ikasketekin lotutako zerbait ere izan zitekeen, eta, azkenean, horrela izan da. Beraz, beste neska ar-

kitekto bategaz Kenyako nekazariei laguntzen ahaleginduko gara.

Bi lagun ibiliko zarete orduan?

Bai, hori da. Bilboko neska bat eta biok joango gara. Hasieran, beste biologo bategaz joan behar nuen, baina, lana dela eta, ezin da joan.

Uda honetakoa lehen esperientzia izango duzu koperante moduan?

Begirale moduan urte askoan ibili naiz. Hamar urte izango dira hasi nintzenetik, baina, koperante moduan beste herrialde batera noan lehen aldía da. Urte hauetako guztietako esperientziak jendeagaz harremanak egiteko orduan lagunduko didala esango nuke. Baina, aldi berean, beste herrialde batera

joateak, beste hizkuntza bat hitz egin behar izateak... horrek urduritu egiten nau. Hala ere, airtortu behar dut Euskal Herri-tik beste bategaz joateak lasaitu egiten nauela.

Hilabete barru Kenyatik ibiliko zara. Zer sentsazio dituzu?

Oraindik nahiko urrun ikusten dut joateko unea hori. Baina, egia da joateko gogo itzela dudala. Badakit hasieran oso arraroa egingo zaidala, hemen-dik urrun egotea, kultura ezberdina duen jendeagaz egunerokoan ibiltzea... Baina, esperientzia hau bizitzeko eta beraieganetik ahal dudan guztia ikasteko irrikitan nago.

Beraieganetik ikasi eta beraiei irakasteko, ezta?

Bai, hori da. Ni eurei laguntzera noa hara, baina badakit eurak izango direla niri gauzak erakutsiko dizkidatenak, eurek asko baitute irakasteko. Gainera, pertsona moduan hazteko eta gauzak beste modu batean ikusteko ere aukera paregabea izango dela iruditzen zait Kenyako bidaia hau.

Atxondoko Udal Igerilekua

Zabalik ekainaren 20tik irailaren 4ra
Ordutegia: 11:00-20:00

SARRERA

- 4 urtera arteko umeak **debalde**
- 5-17 urte bitartekoak **3,50€**
- 18tik gorakoak **4,50€**

www.atxondo.net

ELORRIO

ELIZALDE UDAL IGERILEKUAK

Ekainaren 17tik irailaren 18ra

ordutegia
11:00 - 20:30

BPXport

· Tel.: 637 579 782 ·



Anbotoren Lagun eginez, irabazi ezazu asteburuko egonaldia DEBAko eta ORIOko Aisia Hoteles-en

Anboto Lagunen artean Aisia Hoteles-en bi egonaldi zotz egingo dugu uztailaren 1ean, bakoitza bi pertsonendako eta Talasoterapia zirkuituaz.

Anbotorenlagunak
Lekuan lekuko lagunak



Anbotoren Lagun eginez bi bidaiaren zozketan parte hartzeko aukera izango duzu.

Udako oporrak hartu aurreko azken txanpan, atsedean hartzeko beharizan handia izaten da. Zer hobe, Debako eta Orioko Aisia Hoteletan asteburuko egonaldia egitea baino. Talasoterapia zirkuitua ere bidaiaren barne sartzen da. Uztailaren 1ean bi lagunentzako bi egonaldi zotz egingo ditugu Anbotoren Lagunen artean.

Beste aukera bat Andaluziara edo Costa Doradara bidaiara irabaztea da. Izan ere, Anbotoren Lagunen artean astebeterako bidaiara zotz egingo dugu uztailaren 15ean.

Parte hartu eta bidaiatu ezazu!

-  **A-METZ DEKORAZIOA**
> -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
-  **BETIXU JATETXEA**
> - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.
-  **COLOR PLUS**
> -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
> -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.
-  **EPOCA SUKALDEAK**
> -%10 sukalde nahiz etxeke altzarrietan.
-  **EUREKA! ZIENTZIA MUSEOIA**
> -%10 sarreraren deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.
-  **GIMNASIO ZIRKIN**
> Bazkide berriei matrikulazioa doan.
> Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.
-  **GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA**
> -% 5 produktu guztietan.
-  **HITZ LIBURU-DENDA**
> -%10 euskarazko liburuetan.
-  **HONTZA EXTREM ABENTURA PARKEA**
> -%15 sarreraren.
-  **ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA**
> -%5 lehenengo erosketan.
> -%10 erosten den bigarren arropan.
-  **IURRETA KOPISTEGIA**
> -% 10 eskola eta bulego materialean.
> -%5 musika, operari eta liburuetan.
-  **KATXARRO JATETXEA**
> -%10 asteburuetako menuetan.
-  **KIROL ERROTA GIMNASIOA**
> Bazkide berriei matrikulazioa doan.
-  **LANDAKO OPTIKA**
> -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta montura eta lenteetan.
-  **NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**
> -% 10 Dippner oinetakoetan.
> -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.
-  **OPEN KLUB**
> -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.
-  **PLATERUENA KAFE ANTZOKIA**
> Bosgarren gosaria doan.
> Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.
-  **UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA**
> Azterketa eta horren bi erradiografiak doan.
-  **UNDARRI BIKE**
> -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
> -%10 bizikletako osagarrietan.
-  **URRIKE LIBURU-DENDA**
> -%5 liburuetan.
> -% 10 papergintzan.
-  **UR URDAIBAI**
> -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitzieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



Andaluziara edo Costa Doradara bidaiara irabazi ezazu Anbotoren Lagun eginez

Anboto Lagunen artean lau pertsonentzako (2 heldu + 2 ume) astebeterako bidaiara zotz egingo dugu uztailaren 15ean

Anbotorenlagunak
Lekuan lekuko lagunak



EROSKI bidaiak
Anboto? Egia Lagun!

www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

Euskal Herriko Eskolarteko txapela irabazi du Txaber Altube abadiñarrak

18 urte bete ditu dagoeneko Altubek, eta txapela irabazi du bere azken Eskolarteko txapelketan

> BERTSOLARITZA Itsaso Esteban Txaber Altubek (Abadiño, 1998) irabazi zuen zapatuan Ereñozun jokatu zuten Euskal Herriko Eskolarteko XXVIII. Bertsolari txapelketaren finala. Arabako, Baxenabarreko, Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Nafarroako dozena bat bertsolari aritu ziren finalean. Txirritaren heriotzaren 80. urteurrenaren biharamunean, haren jaioterrian jokatu zuten eskolarteko txapelketaren finala, eta Beñat Mujika donostiarra izan zen bigarren sailkatua.

Oholtzara igo aurreko urduritasunak agurra kantatuta kendu zituela gogoratu du Txaber Altube Abadiñoko txapeldunak.

“Gustura” jardun zela kontatu du 18 urteko bertsolariak. Eta, “bereziki gustura”, Zortziko Nagusian ofizioka egindako lanagaz geratu zela azpimarratu du. Bikotekideagaz dabilenetik, betiko laguna ahaztua utzi duenaren paperean kantatu zuen Altube abadiñarrak ariketa horretan, Maite Berriozabal berriztarrak emandako gaiagaz.

Eskolarteko azkena

Hamabi urtegeaz hasi zen Altube Eskolarteko Bertso Txapelketan parte hartzen, eta 14 urte artekoen saileko Euskal Herriko txapelketa irabazi zuen, 13 urtegeaz. Hamazortzi urte beteta, hauxe izan du Altubek azken es-



Alaia Martin bertsolariak ipini zion txapela Altuberi.

kolartekoa, eta, txapela jantzita agurtu ahal izan du.

Eskolartekoan ezezik, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren udaberriko fasean ere parte hartzen ibili da Txaber Altube, azken hilabeteotan. “Gainera, Batxilergoko bigarren maila ere amaitzen ibili naiz, eta azterketa piloa ere eduki dut...”, azaldu du gazteak. “Garai nahiko konpli-

katua izan da, baina oso gusturago”, adierazi du Altubek. Lortutakoagaz oso pozik dago, izan ere, Euskal Herriko Eskolarteko txapelketa irabaztea ezezik, Bizkaikoan ere aurrera egitea lortu du, eta udazkenean hasiko den hurrengo fasean kantatuko du.

Txapelketak “nerbioak kontrolatzen ikasteko” baliagarri izan zaizkiola dio Altubek. “Pla-

zak eskaintzen dizkizu txapelketak: asko balio du ikasteko”.

Bizkaiko Txapelketako Udazkeneko Fasera begira dago Txaber Altube abadiñarra orain

> ANTZERKIA I.E.

Hamarkada bat betetzen du aurturaren Iurretako Kalez Kale antzerki jaialdiak, eta ekainaren 16tik 19ra izango diren zortzi kale antzezlan programatu dituzte, jaialdiaren urtemuga ospatzeko. Jaialdiaren aurreko bederatzidiz edizioetan bezala, Euskal Herriko sortzaileen kaleko ikuskizunen erakusleio izango dira Iurretako plaza eta txokoak, Kalez Kale jaialdian. Doakoak izango dira, gainera, emanaldi guztiak.

Zirika Zirkus nafarrek eskainiko dute jaialdiko lehenengo emanaldia: klowna, malabareak eta zuzeneko musika uztartzen dituen *Tren geltokia* ikuskizuna eskainiko dute nafarrek, ekainaren 16an, 18:00etan.

17an eta 18an, hiruna

Hiruna hitzordu izango dira ekainaren 17an eta 18an. Jolas eta tailerretan parte hartzeko aukera izango dute *Ferieta Pirata* ekimenean, ekainaren 17an, 17:00etatik 19:00etara, kaskoan. Tailerrak amaitzean, Toni La Sal Damagia taldearen *La familia Torombole* txotxongilo ikuskizuna eskainiko dute Askondon. Eguna amaitzeko, 21:30ean, estreinatu berri duen dantza, su artifizial eta perkusioen *Su à feu* ikuskizuna egingo du Deabru Beltzak taldeak, kaskoan.

Kalez Kale antzerki jaialdiaren 10. urteurrena ospatzeko, 8 ikuskizun

Ekainaren 16tik 19ra ospatuko dute, Iurretan, Kalez Kale antzerki jaialdia



Hiru emakume borrokalari protagonista dituen 'La Parisienne' obra eskainiko dute, ekainaren 18an, Pez Limbo gasteiztarrek.

Abadiñon bizi den Dikotomia taldearen *Spazi...O* ikuskizunak zabalduko du ekainaren 18ko egitaraua. Zirkugaraikidean eta dantzari oinarrituriko ikuskizuna eskainiko dute, 13:00etan, Amilburun. Arratsaldean, 17:00etan, Patxin eta Potxin pailazoak arituko dira, Dantzarin, eta Pez Limbo

talde gasteiztarrek edukiko du zapatuko borrokalari biltzeko ardura. Euren askatasuna defendatzeko borrokan dabilzan hiru emakume protagonista dituen *La Parisienne* obra eskainiko dute. “Berbarik bako ikuskizuna, isilik geratzen ez den jendeari buruzkoa” da *La Parisienne*, egi-leen berbetan.

Magia emanaldia izango da hamargarren Kalez Kale jaialdiko azkena. Madiber mago gaztea arituko da, ekainaren 19an, 13:00etan, Dantzari plazan. “Magia, kolorea eta musika” dira ikuskizun horren ezaugarriak.

Aurreko urteetan bezala, eurria eginez gero, frontoira lekualdatuko dituzte emanaldiak.

Julene Azpeitia literatur sariak banatuko dituzte, domekan

> LITERATURA I.E.

Durango San Agustin kulturunean egingo dute, ekainaren 12an, 12:00etan, Julene Azpeitia literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. 410 idazlan jaso dituzte Durango Udalak 1983tik antolatzen duen lehiaketaren aurtengo deialdian: 286 ipuin, 50 olerki eta 74 bertso aurkeztu dituzte, guztira, Durango ikastetxeetako ume gazteek, kanpoan ikasten duten durangarrek, eta parte hartu duten Euskal Herri osoko literaturzale helduek.

286 ipuin, 50 olerki eta 74 bertso jaso dituzte, aurturaren Durango Julene Azpeitia literatur lehiaketan

Ipuinen, bertso idatzien eta olerkien arloetan, euren adineko dagozkien sailetan saridunak izan diren hamalau lagunek jasoko dituzte sariak, domekan.

Andoni Egaña (Zarautz, 1961) | Bertsolaria |

> BERBALDIA Itsaso Esteban Plazetako bat-bateko bertsogintzatik erretiroa hartu berri duen Xabier Amurizaren lanaren hiru alderdi hartuko dituzte ahotan ekainaren 16an, Zornotzako Zelaieta zentroan. Iritzi eragile gisa Amurizak izan duen paperaz jardungo da Edurne Brouard, eta hizkuntzalari gisa egindako lanaz Kepa Altonaga. 'Amurizaren sorkuntza' gaia emanda arituko da, berriz, Andoni Egaña.

Amurizaren sorkuntza: esparru zabala egokitu dizute Zornotzako mahai-ingururako. Xabierrek sorkuntza eremu bat baino gehiago harrapatzen du, bai. Duela urte t'erdi inguru, Durangon berbaldi bat eman nuen Amurizaren bertsogintzaz eta literaturaz, eta hartan oinarrituko dut eguneneko.

Zeintzuk izango dira zure hitzaldiaren ardatzak?

Bertsolaritzaz eta literaturaz arituko naiz, nagusiki. 1980ko txapelketa nagusira aurkeztu zenean Amurizak egin zuen ekarpena aipatuko dut nire berbaldian, gehienbat. Garai hartan, 19 urteko gaztea nintzen ni, eta liluratuta utzi ninduen bere bertsokerak. Saiatuko naiz analizatzen zertan zen berria Amurizak 80an proposatzen zuena: bere iruditeria, lexikoa, sintaxia... Amurizak berrikuntza formal eta fondokoa ekarri zuen. Bestetik, literaturan azken urteetan hartu dituen bideak ere izango ditut ahotan.

80ko txapelketa horretan Amurizak egin zuenak bultzatu zintuen zu bertsotara?

Horrela izan zen, zelanbait, bai. 18 urte neuzkan, konturatu nintzen futboleko txarra nintzela, eta 80ko hamarkadako txapelketa hura entzun nuenean, pentsatu nuen saiatu behar nuela halako zerbait egiten. Iraul-tza txiki bat izan zen nigan, bai, Xabierren eskutikoa. Bertsolaritzaren sozializazioan garran-

“Bertsolaritzaren sozializazioan garrantzitsua izan da Amuriza”

Xabier Amurizaren lana aztertu eta eskertuko dute, egunean, Zornotzan



Amurizaren sorkuntza aztertu du Egaña bertsokide eta lagunak, Zornotzako eguneneko berbaldian.

tzitsua izan da Xabier Amuriza, eta forma artistikoari dago-kionez, oso aintzat hartzeko sortzailea dela uste dut.

Une inportanteetan, behar zen lekuan, berrikuntzaren aldeko apustua egiten egon da beti?

Erudizio handiko gizona da Amuriza, oso oinarri intelektual sendokoa. Baina, oinarri horretatik abiatuta, azken 40 urteetan planteatu diren bidegurutze inportanteetan, han egon da beti. Beti egiten du aukera bat, errazenaren kontrako beti. Atsegina egiten zait Amurizaren konplikazio hori. Dena erraz, dena funtzional izan behar duen garaiotan, Amurizaren bide artistikoak beti dira interesgarriak. Bide artistiko interesgarriak hartzen ditu, baina, aldi berean, bera izan da *Zu ere bertsolari* hiztegi errimatu idatzi eta bertso eskolen sorreran eragin duenarikoa.

Eruditoa, baina gizarteagaz harreman estua duena.

Aukeratu dituen bide artistikoak, beharbada, izan daitezke konplikatuak, baina, aldi berean, herri xeheagaz lotura handia dauka, eta izan du beti.

Lau hamarkada baino gehiago eman ditu Euskal Herriko plazetan kantuan.

Bai, ogibide izan du plazakoa, eta bere lan intelektualetik herrira hurbiltzeko bidea ere bai. Asko disfrutatzen du Xabierrek jendartean. Plazetan beragaz izan ditudan esperientziek lagundu didate niri Amurizaren ezaugarri poliedriko horiek hobeto ulertzen.

Jendartean horrela gozatu arren, baina, erretiroa hartu du.

Bai, eta uste dut eleganzia handiz erretiratzen asmatu duela. Izan ere, ni ere ohartu naiz plazako ibilia nekagarria dela adin

batetik aurrera: autoan hara eta hona ibiltzea... Edozelan ere, ez dut uste erabakia hartuta ere, Xabier kristalezko kutxa batean lan intelektuala egiten geratuko denik. Beste era batean, baina jendartean jarraituko du.

• EKAINAREN 16an 19:30ean, Zornotzako Zelaieta zentroan
• **Amurizaren gaiak eta garaiak** berbaldia

• EKAINAREN 17an 22:30ean, Durangoko Plateruenean
• **Emaidazue freskura** kantaldia.

• EKAINAREN 19n 09:30ean, Berriztik irtenda
• **Amurizaren bideak eta aireak** erromesaldi artistikoa (autobusez)
• **herri bazkaria** Berrizen

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA
Irakaslea

**Folio zulatuak**

Barkatuko didazu, irakurle, baina paper zuriaren aurrean eseri, eta zer idatzi jakin gabe egon naiz luzaroen. Ez dut jakin ez zeri buruz idatzi, ez nola idatzi. Azken finean, ezereza da paper zuria. Edozer posible egiten duen ezereza. Guztiz belztu daitekeen zuriunea. Norberak jartzen ditu kolorea, estiloa, asmoa, gogoa... Eta emaitza ere ez da berdina izaten beti. Areago, desberdintasun horrek zuriago bihurtzen du paper zatia, eta distira berezia eskaintzen dio.

Bizitza bera ere Word-eko paper zuri bat da, ertzak ondo finkaturik dituena. Mugak, marjinak... Egun serioetan Times New Roman, momentu infantilagoetan Comic Sans, mundua jango dugula uste dugunean 16, munduak jango gaituela dirudienean 7...

Bizitzan ere, idazterakoan bezala, batzuetan, aldeztu aurretik norabidea zehaztuta ematen ditugu pausoak; besteetan, berriz, inprobisazioarekin dantzatzen, etorkizun gertuenean ere non eta zertan izango garen ezin jakinik ekiten diogu egunerokoaren makinaria martxan jartzen duten teklak sakatzeari, z-a-l-o-d-p...

Baina badago alde txiki bezain garrantzitsua paper zuri batean idaztearen eta bizitzaren hurrengo orrialdeak idaztearen artean. Fikzioan beti erabili ahal izango dugu borragoma. Bizitza, berriz, biografia eta arrasto ezabaezinez beterik dago.

Picnic Musikala Tabiran
EKARRI ZURE PIKNIKA ETA GOZATU GUREKIN TABIRAKO ZELAIAN

Ekainaren 19a, igandea
12:00 - 18:30

12:00-13:30 Lindy Hop Dantza taller irekia
Colectivo Savoy Swing Up (Vitoria-Gasteiz)

13:30-15:00 Musika: Broken Brothers + Bartolome Ertzilla
musika eskolako Marching Band

16:00-16:30 Historia del swing Hitzaldia

16:30-18:30 Musika + dantza:
Bart Sax (Bartolome Ertzilla musika eskola)

uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

• EKAINAK 10 20:30ean
ABU & ANE FOTNOBELA
AURKEZPENA

• EKAINAK 11 0:00etan
SUMMER PARTY
JAIALDIA

• EKAINAK 15 19:00etan
GUKA
MAHAINGURUA

guka
EUSKALGINTZA ETA INSTITUZIOEN ARTEKO ELKARLAN ETA HARREMAN AUKEREZ

Live And Beat
SUMMER PARTY 2016
VIKTOR ZELDEN
DANNY MEIP - DJ NEVEL

Aspegaz debutatu aurretik, Biharko Izarrak finala jokatuko du, gaur, Andoni Ugaldek

Orain arte txapelketa irabazi duten aurrelari denek profesionaletan debutatu dute

PILOTA J.Derteano

Gaur, 19:30etik aurrera, Biharko Izarrak pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte Mallabian. Txapelketaren orain arteko 12 aldietan finala jokatu duten 29 pilotarik profesionaletarako saltoa eman dute segidan. Aurrelarien kasuan, estatistika adierazgarriagoa da:

Ugalde-Martinez eta Labaka-Sarasa bikoteek jokatuko dute binakako finala Mallabian

txapela jantzi duten aurrelari denek eman dute gorako urrats desiratua. Marka horrek bere horretan iraun dezan saiaturiko da gaur Andoni Ugalde. San Juan egunez Eibarko Astelenan

Aspegaz debutatuko duen oiar-tzuar gazteak Biharko Izarrak txapelketako finala jokatuko du gaur, binaka.

Ugaldek Bera Bidasoako Iñigo Martinez izango du bizkarzain, eta biak faborito dira txapela janzteko. Peru Labaka zizurkildarra —Amezketako taldeagaz jokatzen du— eta Joseba Sarasa uhartearra izango dituzte aurkari. Bikote sendoa osatzen dute hauek ere. Irabazteko aukerak izateko, Sarasak atzean agindu beharra dauka. Bestela esanda, ezin diote utzi Ugalderi partiduko erritmoa ezartzen. Besteak beste, federazioen arteko GRAVNI txapelketa irabazi du Ugaldek, eta sasoi betean dago. 21 urteko pilotariak beso bietan indarra hartu du orain urtebetetik hona, eta, gaur egun, tantoak amaitzen abila izateaz gainera, txispadun pilotaria da.



Andoni Ugaldek GRAVNI txapelketa irabazi du aurtien buruz buru.

Lau t'erdiko finala

Binakakoaren aurretik, lau t'erdiko finala jokatuko dute Jon Alberdi azpeitiarrak eta Enaitz Anso burlatarrak. 17 urteko pilotariak ez dute zerikusirik euren jokamoldean. Anso pilotari segurua eta langilea da, segi eta segi egiten duen horietakoa. Eta borrokarako dohain horiek erabiliz ezustekoa eman zuen finalerdietan Elola bidegoiendarra kanporatuta. Elola Arangu-

ren aginagarra —Asegarcegaz prekontratua dauka— menderatetik zetorren. Horregatik, fi-

Lau t'erdian Enaitz Anso ezustekoa emanda heldu da finalera; parean, Jon Alberdi izango du

nalera sailkatzeko faborito argitatzat ikusten zuten askok, baina Ansok aurreikuspenak hankaz gora jarri zituen aurreko astean. Kaiolako bigarren protagonista, Alberdi, artista da. Gantxoak eta aireko jokoa maisutasunez menderatzen ditu. Ez da jotzailea, baina bere dohainak aproposak dira lau t'erdierako. Gaur egun, gazte mailako pilotarien artean mailarik handienera dabilen aurrelaria da adituen ustez.

Iurretako gazteak nagusi herri kiroleetan

Euskadiko jokoetako proba denak irabazi dituzte

HERRI KIROLAK J.D.

Iurretako EKHI herri kirol taldeko gaztetxoak nagusi izan ziren Zorrozkako atletismo pistan jokatutako Euskadiko XXXV. Eskolarteko Kirol Jokoetan. Kimu mailako bost taldek lau probatan parte hartu zuten, eta

den-denetan Iurretako gaztetxoak izan ziren onenak. Lokotx bilketan, zaku eta txinga eramaten eta sokatiran puntuaziorik gorena jaso zuten. Ikasberri eta Karmelo Etxegarai geratu ziren bigarren eta hirugarren.



Euskadiko jokoetan parte hartu duten Iurreta EKHIko gaztetxoak.

16 urtez azpiko xake jaialdia, etzi, Elorrion

Zaldi Baltza xake taldeak antolatuko du

XAKEA J.D.

Zaldi Baltza xake taldeak, Elorrioko Udalararen laguntzagaz, xake jaialdia antolatuko du domekan. Aurrez izena eman duten 16 urtetik beherako gazteak batuko ditu aurtien laugarren aldia beteko duen jaialdiak.

Xakea kalera ateratzea eta gazteen artean kirol hau sustatzea izango ditu helburu. 10:00etatik 14:00etara Kontseilupean batuko dira. Sei txandako sistema suitzarrean —15 minutu partidako— arituko dira parte-hartzaileak.



Zaldi Baltzako gaztetxoak.

Zornotzan doako herri martxa adin guztietako parte-hartzaileei irekita

KORRIKA J.D.

Zornotzan XII. Herri Lasterketan parte hartzeko aukera dago zapatu honetan. Zornotzako Atletismo Eskolak eta Maran Kirolak-ek askotariko babesleekin antolatutako probak adin guztietako parte-hartzaileak hartuko ditu, eta denentzako izen-ematea doakoa da proba bakoitza hasi baino orduerdi lehenagora arte.

Bihar, 17:30ean, Zubiondo parkean jarri dute hitzordua. Ordu horretan, 13-17 urte artekoek zuzendutako lasterketa hasiko dute. Ondoren, 18:00etan, 2-12 urte arteko gaztetxoek txanda izango da. Azkenik, 18:30ean, 18 urtetik gorakoek zazpi kilometroko ibilbideari ekingo diote. Arratsaldean zehar oparien zozketa egingo dute.

Zesta-punta berpizteko jaio den zirkuitu berria Durangoko pilotalekuan bataiatuko dute bihar

Xistera Zirkuituko lehenengo finalak jokatu dituzte; bi gizonetan eta bat emakumeetan



Joan zen asteburuan jokatu zituzten finala erabakitzeako partiduak.

> ZESTA-PUNTA J.D. Zesta-puntaren historian lehenengoz, Euskal Herriko klubak elkargo batean batu dira, helburu bakarragaz: zesta-punta berpiztea. Bide horretan, harrobjari eta zesta-punta eskolei laguntzea ezinbestekotzat jotzen dute.

Helburu horren emaitzetako bat Xistera Zirkuitua da; afizionatu eta gazte mailako pilotariei partiduak jokatzeko aterki egonkor, iraunkor eta artikulatu bat eskainiko die. Eta proiektu ambiziotsu hori Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan bataiatuko

dute bihar, Xistera Zirkuituko lehen finaletan.

Joan zen asteko kinieletan erabaki zituzten bihar 18:00etan hasiko den jaialdiko finalistak. Emakumeetan Eneritz Lizardik eta Jane Arreitunandiak Nahia Calvo eta Izaro Arberen kontra

jokatuko dute. Gizonetan eta nagusietan Kosme Agirre eta Julen Del Rio Antxon Alberdi eta Edu Susoren aurka, eta gazteetan Aitor Mancisidor eta Txomin Bereziartua Unax Vidal eta Xabi Arrizabalagaren kontra.


Batasuna bide bakarra

Xistera elkargoko Urreisti presidenteak proiektu berrian zesta klub denak batu izana azpimarratu zuen: “Guztiak asmo bakarragaz batu dira: zesta-punta berpiztea”. Euskal Herriko Pilota Federazioko presidente Patxi Jauregiarentzat ere “batasuna da aurrera egiteko modu bakarra”. Aitziber Irigoras Durangoko alkateak adierazi zuenez, pilotan hain tradizio handia duen herriak “poztasun handiz” hartuko du etorkizunera begirako egitasmo honen finala.

ADITUAREN TXOKOA

KEPA ARROITAJAUREGI

Pilota teknikaria



Disfrutatzen

Uda garaia polita izan ohi da pilotazalearentzat eta baita pilotariarentzat berarentzat ere. Lehiaketa ofizialak alde batera utzi eta festetako jaialdietan izaten dira gehienak. Afizionatu zein profesional, neska zein mutil, zuriz jantzita dotore ateratzen dira kantxetara.

Jokoa ere ezberdina izaten da, bai pilotariak bai ikusleak gogoko duteneko, alaiagoa. Horretan bat artista baldin bada, bere azken uda ‘eskainiko’ digun Pablo Berasaluze da. Berriztarra han eta hemen ikusiko dugu programatua eta, zortea izanez gero, partidurik gehien jokatzea tokatuko zaion garaia izango da. Bere etxean, Berrizen, jada egin du bere agurra, eta Bilbon urriaren 1ean jokatuko duen arte Bizkaiko herri gehienak bisitatuko ditu, seguru. La Brit, Ogeta edo Adarraga-kantxek ere emango diote azken agurra ‘Pablito’-ri.

Halere, asteburu honetan bi interesgune ere baditugu inguruan, biak barikuz; Abadiñon Euskal Ligako finalak Tornosolo trinketean, eta Mallabian bertako ‘Biharko Izarren’ zita. Abadiñon, etxeok lehiaketa borobildu nahi dute Euskadiko txapela soineratuz, eta, bide batez, Asier Aspuru urte bikaina burutuko luke. Banaka GRAVNI-an txapelkun, Binaka Euskadiko ligan Arabiogaz batera. Faborito badira.

Eta Mallabian, merezi bazuen ere, bizkaitar bako finala afizionatu mailako gazte onenen artekoan. O. Etxebarria tanto bakar bategatik kanpoan geratu ostean, Ugalde-Martinez eta P. Labaka-Sarasa lehiatuko dira titulu preziatuaren bila. Bada, esanikoa, udaz eta pilotaz gozatzeko aukera! Bueltara arte.

Durangaldeko pilotuek osatutako podiuma

Zornotzako Rallysprinta Tarsiciok irabazi zuen

> AUTO LASTERKETAK J.D. Joan zen asteburuan lehiatutako Zornotzako Rallysprintak Durangaldeko pilotuak izan

zituen protagonista. Iban Tarsicio abadiñarrak eta Iñigo Peña atxondarrak irabazi zuten; bigarren postua Enrique Barre-

netxea-Arando zaldibartarrantzat eta Anartz Onandia durangarrantzat izan zen. Podiumeko azken koska Eneko Goiriena durangarrak eta Alain Peña abadiñarrak bete zuten. Azken horientzat beren ibilbideko aurreneko podiuma izan zen. Goiriena zein Tarsicio Hirumet taldekoak dira, eta podiumean laurak batera egotea “hunkigarria” izan zela onartu du Tarsiciok. Garaipena, “babesleei, amari eta neskalagunari” eskaini gura die.

Denboraldiko bigarren garaipenagaz Euskadiko Rallysprint Txapelketako sailkapena asko estutzea lortu du. Zornotzan aurreneko postuetatik urrun geratu zen Aingeru Castrok hamar puntu baino ez dizkio ateratzen orain. Enrique Barrenetxea-Arando hirugarren dago. Txapelketa amaitzeko lau proba falta dira: “Hemendik aurrera, inork ezin du hutsik egin”, dio.

Durangon beteranoen kriteriuma jokoan zapatuan

> ATLETISMOA J.D.

Zapatuan, 17:00etan hasita, Durangoko beteranoen kriteriuma jokatuko dute Durangoko atletismo pistan. Euskadigaz batera, Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabriako selezioak lehiatuko dira. Modalitate askotako atleta onenak batuko dira. Esaterako, luzera jauzian munduko azpitxapelduna izana den Loles Vives etorriko da. Orkatz Beitia—bost bider Espainiako txapelduna 100 metroko proban eta erreleboetan— eta Javier Fontaneda—birritan munduko txapelduna 10.000 metroko proban eta maratoi erdian— dira lehiatuko diren beste atleta batzuk.



Iban Tarsicio eta Iñigo Peña Zornotzako podiumean.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

shopping days
BAUTISTA



20 egunean prezio bereziak gure dendetako sail guztietan.
Ekainaren 10etik 30era bakarrik

%30era arteko deskontuak

Zure erosketan %100 finantzatzen dugu,
eta urrian ordaintzen hasiko zara:

10 kuota sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe

www.bautistamuebles.com ☎ 94 672 77 00 info@bautistamuebles.com

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1. o. - 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guzti berriatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txaleta 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berriatuzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guzti hornitua. Ia berria, estreinatuzeko.

BERRIZ. Baseri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

OLLERIA



• 93m² erabilgarri. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, garaje tokia eta ganbara. **280.000€.**

TABIRA



• 1. solairua: logela bat, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia 2. solairua: Logela handia eta komuna. Garajea itxia eta trastelekua. **260.000€.**

ARANDOÑO TORRE: 112m² DOTORE-DOTOREA



• GUZTIA BERRIZTUA. 4 logela, egongela, sukalde guztia jarrita, 2 komun. Garajearekin. Handia, eguzkitsua. **256.000€.**

MARTXOAREN 8 KO



• Oso egoera onean dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela-sukaldea jarrita, esekitokia, 2 komun, euretako bat leihoarekin, ganbara eta garajea. **250.000€.**

TROMPERRI



• 99 m² eraikita. 4 logela, egongela zabal, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Kanpo aldera begira. Ikuspegi onak eta eguzkitsua. Eraikinak teilatu terraza komunitarioa dauka. Txoko komunitario handi bat ere badauka. **243.900€.**

ANTSO ESTEGIZ



• 101 m² erabilgarri. Berriatuzeko. 3 logela, egongela handia balkoiarekin hegoalderantz. 2 komun, sukalde handia. Igogailua eta ganbara. **176.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- A. ESTEGIZ. 2 Logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Ganbara. Igogailua. Eguzkitsua. 90.000€.
- IURRETA. 3 Logela. Zabalak. Komuna. Egongela eta sukaldea. Igogailua. Berogailua. 115.000€.
- MATIENA. K/ Laubideta. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. AUKERA. 155.000€.
- KURUTZIAGA. 3 logela, komuna eta balkoia. 130.000€.
- AZKEN ETXEBIZITZA. Estreinatuzeko. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Terraza. Trastelekua. Garajea. 159.000€.
- SAN FAUSTO. Zeharmendieta. 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.
- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.
- IURRETA. Maspe. 3 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. Ikuspegi onak. 105.000€.

ETXEBITZAK SALGAI

- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Guztia berriatua. 125.000€.
- TROMPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. 243.900€.
- TABIRA. Erdi-berria. 3 logela. 2 komun. Egongela-sukaldea. Terraza. 285.000€.
- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. 125.000€.
- MENDIZABAL. 131 m². 3 logela. 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea itxia. 270.000€.
- IURRETA. DENA BERRIA. 3 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Berogailua. Igogailua. Trastelekua. 155.000€.
- F. J. ZUMARRAGA. Apartamentua. Erdi-berria. 155.000€.
- F. J. ZUMARRAGA. 100m². 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.
- F. J. ZUMARRAGA. 100m². 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.
- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100m². 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekotokia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. 245.000€.
- M. TORRE. 134 m². 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. Ganbara. Bi garaje toki. Eguzkitsua. 299.000€ negoziagarria.
- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi-berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua. Garajea. 270.000€.
- TABIRA. Erdi-berria. 105m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekotokia. Egongela. Ganbara eta garajea.
- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trastelekua. Zelaiarekin. 170.000€.
- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi-berria. 3 logela. 2 komun. Trastelekua. Garajea.
- MATIENA. Trañabarren. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Ganbara. 196.900€.
- AMOREBIETA. 70 m². 2 logela. Komuna. Berriatua. 160.000€.
- ATIKOA. 35m²-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- S. IGNACIO. 3 logela. 2 komun. Terraza. Trastelekua. Garajea. 230.000€.
- A. EZTEGIZ. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Igogailua. 155.000€.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. Berriatua. Eguzkitsua. 140.000€.
- ZUMALAKARREGI. 65 m². (Bulegoa izateko egokia).

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- BARRENKALE. Alokairua. 400€.
- F. J. ZUMARRAGA. 114m². SALGAI.
- IBAIZABAL. 50m². Guztia jarrita. 500€.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Garai. Baserria salgai. Oarbeaskoa, San Migel auzoa, 6. Garai. XVI. mendekoa. Tolare azpiegitura, Igartubeiti baserriaren tankera eta sasoikoa. Ondare legez, Bizkaiko Foru Aldundiaren errehabilitaziorako diru-laguntza du. 10.000 m²-ko lursaila. 8.500 m²-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m²ko baratza, fruta-arbolak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Errehabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Tel.: 639 83 34 89. Posta: jo.amantegi@gmail.com.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100m² azalera eraikituak. Harremanetan jartzeko deitu: 695 77 31 41.

ERRENTAN EMAN

Durango. Barrenkalen logela bateko apartamentua alokatzen da. Guztiz berriak eta oso argitsuak. Tel.: 615-73 60 36.

Iurreta. Iurretan pisua alokatzen da, 2 logela, igogailua. Zubiaurre kalea. 530 euro. Tel.: 695-71 00 69.

OPORRETAO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Vieux Boucau (Landak). Apartamentu bat alokatzen da Landetan, Vieux Boucau herrian. Boucanier erresidentzian dago. Uztailean eta abuztuan alokatzeko. Tel.: 675 71 93 63 (Durangaldea).

Benidorm (Alacant). Sei pertsonentzako apartamentu bat alokatzen da Benidormen uztailean eta abuztuan. Alde

Zaharreen. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 649-00 89 49.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Donostia. Uztailean 1etik etik aurrera pisukide bila gabiltza. Etxea oso ondo dago (sukaldea ona, 3 logela, 2 komun), giro lasaia eta euskalduna. Giro lasai honekin bat egingo lukeen pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 693 80 67 96.

Teknologia

GAINERAKOAK

EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Elorrio. Emakume arduratsuk etxeko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Barruko edo kanpoko langilea. Orduka ere lan egiten dut. Sukalde laguntzailea ere bai. Tel.: 651-94 14 57.

Elorrio. Uztailean zehar, arratsaldetan, asteleheneetik ostiralera umeak zaintzeko prest. Esperientzia handiko neska naiz. Interesa baduzu, deitu edo idatzi lasai. Tel.: 688-64 06 04.

Elorrio. Gizon euskalduna, klinikako tekniko laguntzailea eta etxeko laguntzailea prest dago adinekoei laguntzeko (egun osoan) edota lagun egiteko (etxean zein zahar egoitzan), erosketak egiteko eta abar. Prezioa: paseatzera 4.85 euro/2 ordu.. Aste osoa: 40 euro. Mugitzen laguntzeko: 10 euro egunero. Aste osoa: 65 euro. Elorrioren. Durangaldea. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrirak@yahoo.es.

Durangaldea. Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketara lanak egiteko prest. Tel.: 722-39 62 33.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketara ere jarduten dut. Tel.: 632-57 35 54.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketara ere jarduten dut. Malgutasuna ordutegian. Tel.: 609-88 79 21.

Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbitasunean ere bai. Barneko edo kanpoko langilea. Tel.: 631-36 95 87.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka ere bai. Garbitasunean jarduteko prest. Tel.: 688-95 95 75.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketara ere jarduten dut. Orduka edo kanpoko langile moduan. Esperientziaduna. Erreferentziakin. Tel.: 632-16 37 82.

Durangaldea. Gizona lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka, barruko edo kanpoko langilea. Tel.: 612-48 14 70.

Durangaldea. 24 urteko gizonetako pertsona nagusiak zaintzeko prest. Barneko edo kanpoko. Tel.: 612 48 14 70.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut barneko langile moduan. Tel.: 602-16 92 35.

Durangaldea. Garbiketara, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 665-51 65 39 (Ana)

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Tel.: 632-08 6075.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketara, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 632-70 81 59.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barruko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 632-51 61 91.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

Durangaldea. Batxilergoko ikaslea naiz, eta prest nago Lehen Hezkuntzako zein DBH 1, 2 eta 3ko ikasleei klase partikularrak emateko. Tel.: 688-66 87 68.

GAINERAKOAK

Durangaldea. 19 urteko mutila edozein lan duinetarako prest. Tel.: 699-25 29 62

Durangaldea. Gizona lan bila dabil igeltsero, adreilu jartzaile, pladur jartzaile edo zeramikari moduan. Tel.: 631-06 72 62.

Durangaldea. Lorezaintzan, obran edo baserrian lan bila nabil. Aste bitartean edo asteburuetan. Ordu-tegi zabala. Tel.: 602-16 48 06.

LAN ESKAITZAK

OSTALARITZA

Berriz. Berriz asteburuetan lan egiteko, sukaldaria behar da. Tel.: 946-82 40 27

Durango. Plateruena Kafe Antzokiak jatetxeko zerbitzaria behar du. Baloratuko da esperientzia, euskara maila eta talde lan gaitasuna. Interesatuak bidali curriculuma zuzendaritza@plateruena.net helbidera ekainaren 15a baino lehen.

GAINERAKOAK

Elorrio. Ile-apaintzaile lanpostua daukagu Nukleo ile-apaindegian. Kontaktua: 946-58 29 96.

GAINERAKOAK

Denetarik

SALDU / EROSI

Txerrikumeak salgai. Txerrikumeak salgai. Tel.: 692-36 69 55

Ibilgailuak

AUTOAK


SALDU

Megane scenic salgai. Megane Scenic salgai.1.6 dinamique. 2007. Tel.: 676-20 28 55. Posta: arantza58@hotmail.es.


anboto.org
MUGIKORREAN




Albisteak, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

DESKARGATU DOAN !

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 11n, 23:00etan, Zaldibarko Gaztetxean

Highlights + The Riff Truckers

Arrigorriagako Highlights laukotea eta The Riff Truckers gernikarrak dira Gari Rock jaialdiko biharko gonbidatuak. 70eko hamarkadako rockaren eraginpeko musika egiten dute Highlights-ekoek, eta blues ukituko rocka gernikarrek.

Musika

:: DURANGO

EKAINAREN 11n

18:00etan, Kurdistanen aldeko kontzertuak, Sapuetxe Gaztetxean: Jimmy Muelles, Skaleak, Nevadah eta Hexen. Ondoren, DJ Gordi.

00:00etan, Summer Party, Danny Meip, Victor Zelden eta DJ Nevelekin, Plateruenean.

EKAINAREN 17an

22:30ean, 'Emadazue freskura', Xabier Amurizari esker ona emateko kantaldia, Plateruenean.

:: ZALDIBAR

EKAINAREN 10ean

22:00etan, Han + Yoko Out, Gaztetxean.

EKAINAREN 11n

14:30ean, bazkaria, Gaztetxean.

16:30ean, The Reverendos, Gaztetxean.

23:00etan, Highlights + The Riff Truckers, Gaztetxean. Ondoren, DJ R&R, Gaztetxean.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 10ean

19:30ean, Zubiaur musika eskolako herri musika jaialdia, Zelaieta parkean.

EKAINAREN 13an

19:00etan, Zubiaur musika eskolako musikoterapia ikasleen emanaldia, Zelaietako auditorioan.

EKAINAREN 16an

19:00etan, Zubiaur musika eskolako perkusio ikasleen eta abesbatzaren emanaldia, Zornotza Aretoan.



Dantza

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 14an

19:00etan, Zubiaur musika eskolako dantza sortzaile eta klasiko emanaldia, Zornotza Aretoan.

Antzerkia

:: ELORRIO

EKAINAREN 10ean

22:00etan, 'Trastornos literarios', Arriolan.

:: IURRETA

EKAINAREN 10ean

17:00etan, 'Txanogorritxo' umeentzako antzezlan, Ibarretxe kultur etxean.

EKAINAREN 16an

18:00etan, Zirika Zirkus taldearen 'Tren Geltokia', Askondo kalean.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 10ean

21:00etan, Zornotzako antzerki tailerkoen emanaldia, Zornotza Aretoan.

Omenaldia

:: ABADIÑO

EKAINAREN 18an (Jon Peli gogoan omenaldia)

12:00etan, txupinazoa, autoen erakustaldia eta umeentzako jolasak.

13:00etan, trikipoteoa.

14:00etan, brindisa.

15:00etan, bazkari herrikoa.

17:00etan, kamiseten zozketa, umeentzako jolasak, DJ Lineker eta herri kirolak.

20:00etan, Baske Street Boys, Tributo Eskorbuto, Habemus Papam, Los Amaia, eta Tributo Parabellum.

00:00etan, su artifizialak.



Mahai-ingurua

:: DURANGO

EKAINAREN 15ean

19:00etan, euskalgintza eta erakundeen arteko elkarlan eta harreman aukerez, Mikel Irizar, Manex Agirre eta Arrate Gisasola, Plateruenean.



Kontalaria

:: DURANGO

EKAINAREN 16an

18:00etan eta 19:00etan, ipuin kontalaria, ingelesez: 'Storytime Farmyard', Kids&Us akademian (Plateruen plazako 8. zenbakian).



Berbaldia

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 10ean

19:00etan, 'Elikadura ekologikoa haurtzaroan' berbaldia, eta afari ekologikoa, Jauregibarria baserrian.



:: DURANGO | ZUGAZA

Dos buenos tipos

- barikua 10: 19:30/22:00
- zapatua 11: 17:00/19:30/22:30
- domeka 12: 18:30/21:00
- astelehena 13: 18:30/21:00
- martitzena 14: 20:00

Una madre imperfecta

- barikua 10: 19:30/22:00
- zapatua 11: 19:30/22:30
- domeka 12: 18:30/21:00
- astelehena 13: 18:30/21:00
- martitzena 14: 20:00

Un doctor en la campaña

- barikua 10: 19:30/22:00
- zapatua 11: 19:30/22:30
- domeka 12: 18:30/21:00
- astelehena 13: 18:30/21:00
- martitzena 14: 20:00

Albert (euskaraz)

- zapatua 11: 17:00
- domeka 12: 16:30

Albert (gaztelaniaz)

- zapatua 11: 17:00
- domeka 12: 16:30

Angry birds

- zapatua 11: 17:00
- domeka 12: 16:30

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Acantilado

- zapatua 11: 19:30/22:00
- domeka 12: 20:00
- astelehena 13: 20:15

EKAINEN AGENDA



10	DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA 11:30 XIX. Durangaldeko pertsona nagusien gimnasia topaketa. KULTURA SAILA IBARRETXE KULTUR ETXEA 17:00 Umeen antzerkia "Txanogorritxo". Ttipia produkzioak.
17	Kzgunea 9:00 "Google Maps. Visualiza y planifica la mejor ruta". Ikastaroa
18	ANDEREBIDE 9:00 "Urdaibai". Irteera
21	NAZIOARTEKO MUSIKA EGUNA 10:30 Umeen tanborrada. Jarraian, kalejira "kalean txaranga" taldearekin.
23	MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA 11:00-14:00 Eguzki babesaren eta Azaleko Minbiziaren Prebentzio kanpaina. SAN JUAN BEZPERA 15:30 Puzgarriak eta bits jaia. Askondon euria eginez gero. 20:30 Aforia herriko plazan. Euria eginez gero, Olaburu frontoian. Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin. 22:30 San Juan sua piztuko da eta ohiturazko abestia kantatuko da. Jarraian, erromeriak jarraituko du. Jaietako kartelak ikusgai jarriko dira publikoak botoa emateko.
28	KULTURA SAILA KASKOAN 11:00 Iurreta-Chef! Lehiaketa-Gynkana. Hanburgesa egiteko 13-25 urteko neska-mutilek parte har dezakete. Izen-ematea, egunean bertan.




EKAINAK 16



ZIRIKA ZIRKUS
TREN GELTOKIA
18:00 Askondon

EKAINAK 17

Jolasak, tailerrak, animazioa
PERIETA PIRATA
17:00-19:00 Kaskoan
TONI LA SAL / DRAMAGIA
LA FAMILIA TORONBOLE
19:00 Askondon
DEABRU BELTZAK SU A FEU
21:30 Kaskoan



EKAINAK 18

DIKOTOMIA SPAZI...0
13:00 Amilburun

PATXIN ETA POTXIN HERRIKO JAIK
17:00 Dantzarin

PEZ LIMBO LA PARISIENNE
20:00 Askondon



EKAINAK 19

ANIMAGIC MAGOA
MAGIA Y DIVERSION
13:00 Dantzarin



> BOTIKAK**BARIKUA, 10**
09:00-09:00**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**ZAPATUA, 11**
09:00-09:00**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

09:00-13:30

De Diego
Intxaurrondo 22. - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz

09:00-14:00

Irigoiñ
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**DOMEKA, 12**
09:00-09:00**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**ASTELEHENA, 13**
09:00-09:00**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango**Guarrotxena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 14**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Guarrotxena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 15**
09:00-09:00**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Guarrotxena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza




09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 16**
09:00-09:00**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Guarrotxena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**Ermodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Amets (635 znb.)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.**> Irati Ogiza Ruiz de Galarreta** eguaztenean jaio zen. Zorionak lagunenez partez aitari eta amari.**> Zorionak zure 6. urtebetetzean Nora,** familiaren partez. Ondo pasa eguna eta muxu asko Markelen, amaren eta aitaren partez.**> Zorionak bikote zuen ezkontzagatik.** Oso polita eskaini zenuten espektakulua.**> Ekainaren 4an Matienako ume talde polit batek jaunartzea egin eban.** Euren artean, gure Maider egon zan. Zorionak guztion partez.**> Jakes.** Bi urtetxo bete ditu gure bihurriak. Segi bazterrak alaitzen! Mosu potoloa maite zaitugunon partez.**> Zorionak Matienako lagunenez partez Arantza, Asier eta Manolo,** egun on-ona pasa dezazuela.**> Enarak** atzo urteak bete ebazan. Zorionak eta mosu handi bat etxekoenez partez!**> Zorionak Luzia zure hirugarren urtebetetzean,** aita, ama, Irati, Endika, aitteitxe Karlos, amama Enkarna eta beste senideen partez.**> Zorionak gure etxeko printzesari,** ekainaren 12an hiru urte beteko dauz eta. Muxu handi bat etxeko guztien partez.**> Ekainaren 8an, Maddik** urte 2 bete ebazan. Mosu handi bat eta zorixonak!**> Zorionak Martzel!** Musu handi bat etxekoenez partez! Jarraitu irribarre polit horrekin.**> Domekan,** ekainak 12, etxeko printzesak 5 urte betetzen ditu. Zorionak **Maddi** etxekoenez partez.**> "Politto ibili ginen, bai, hankak euripean ta sargoria ostean, musika zainetan ta umorea airean. Ei! Baina pultsua beti... puntuan dantzian. Elegante benetan! Urte askoan halan!"****EKAINEKO SARIAK****Anbotoren lagunak**www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558**HITZ LIBURU-DENDA.**
LIBURUA ETA CDA Patrick Modianoren "Villa Triste" liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" CDA.**AKEBASO. MENUA**
Bi lagunendako aste bitarteko menu exekutiboa.**BAGOAZ BIDAIAK.**
NEKAZAL ETXEA-SPA Durangaldetik ordu eta erdira dagoen nekazal etxe batean egonaldia. Zapatutik domekara. Gosaria eta spa saio bat barne.**UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.**
ESKUILA ELEKTRIKOA Hortzetako eskuila elektrikoa PC800 sensitive ORAL-B.**SALTSAN KATERIN. MENUA**
Bi lagunendako aste bitarteko menua.**ABANTAILAK**

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdeko kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

“DJ saio baten atzean, ikusten ez den prestaketa lan handia dago”

Aitor eta Dani gazte abadiñarrak ikasleak diren arren, DJ munduan esperientzia hartzen ari dira

> AKUILUA Jone Guenetxea
Binilo eta plater artean bizi dira Aitor eta Dani Pintado anaiak. Aitorrek soinu teknikari ikasketak egin zituen, nahaste-mahaia erosi, eta DJ munduan lehenengo urratsak eman zituen. Dani anaia gazteari ere zaletasun hori kutsatu dio.

Zelan sartu zarete mundu honetan?

Aitor Pintado: Duela zazpi urte nahaste-mahaia bat erosi nuen, eta musikagaz probak egiten hasi nintzen. Bi urte geroago, Matienako jaietan jaialdi bat antolatu genuen, plazan. Plateruenean ere jartzen dugu musika.

Dani Pintado: Aitor etxean ez zegoenean, bere materiala erabiltzen hasi nintzen. Horrela, hasi nintzen zaletzen, apurka.

Traña-Matienako San Prudentzio jaietan jo duzue aurten. Herrian jotzea zelako esperientzia izan da?

D.P.: Neuk jo nuen jaietan. Publikora begiratu, eta plaza bete-beteta ikustea itzela izan zen. Azkenengo urteetako beste edozein kontzertutan ez dut hainbeste jende ikusi. Lagunak eta familiako kideak ere etorri ziren. Gurasoak, amama...

A.P.: Aurtengoan ez, baina orain bost urte, jaietarako antolatu genuen jaialdian egon nintzen. Udalak ez du musika mota hau bultzatzeko erraztasun handirik ematen. Rock taldeak ekartzeko nahiko trebeak dira, baina DJak ekartzeko oztopoak jartzen dituzte.

Musika estilo bera gustuko duzue?

A.P.: Danik reggaetoia jartzen du, eta nik, aldiz, musika elektronikoa. Bi estiloek publiko oso desberdina dute. Gazteei gehiago gustatzen zaie reggaetoia.

Dani, noiztik gustatzen zaitzu reggaetoia?

D.P.: House musikagaz hasi ginen biok, baina orain reggaetoia jartzen dut. Jaietara irten, eta reggaetoia gustuko nuela konturatu nintzen.

Diskoteka batean jartzen duzu musika.

D.P.: Bilboko Back Stagen *pintxatzen* dut. Horrez gain, hilean behin, Plateruenean Live and Beat jaialdia antolatzen dugu. Ondarroako kafe antzokian ere aritzen gara.

Djen loraldian gaudela esan dezakegu?

A.P.: Geroz eta DJ gehiago daude. Gailu berriekin *pintxatzea* geroz eta errazago da.

DJ baten saio bat entzuten duzuenen, zerk harrapatzen zaituzte?

A.P.: DJ bat ikustera noanean, jartzen duen musikaz gain, asko baloratzen dut zelan *pintxatzen* duen. Niri musika lasaiagoa gustatzen zait. Estilo hori, Berlinen esaterako, asko entzuten da. Hemen ez hainbes-

te. Kultura elektronikoa gutxi ago dago.

Saio bateko sormen prozesua zelakoa da?

A.P.: *Pintxatzeaz* gainera, musika sortu ere egiten dut nik. Lau

lagunen artean Globular Bass kolektiboa sortu genuen, eta *Free-Label* moduan lan egiten dugu. Jai alternatiboak egiten ditugu, hainbat estilo nahasita: reggea, hip-hop, trap eta elektronikoa. Bestalde, datorren astean nire lehenengo abestia aterako dut. Saiotarako, berriz, musika jaisi eta biniloak erosten ditugu. Zuzenean, dagoen publikoaren arabera, moldatu egiten dugu gure musika. Saio baten atzean, prestaketa lan handia dago.

D.P.: Musika aukeratu, eta nahasketak egiten ditut. Jendeak pentsatzen du dirua irabazten dela, baina atzean lan itzela dago. Eta horri jaialdi oso baten prestaketa gehitzen badiozu, ardura handia da.

A.P.: Danik ordu asko sartzen ditu. Orain bi urte hasi zen, eta ilusio handia du. Nire kasuan, ez dut ilusioa galdu, baina lasaiago hartzen ditut gauzak.

Zein DJ duzue gogoko?

A.P.: Ricardo Villalobos. Ekainaren 15ean Sonar jaialdian pare bat artista ikusteko aprobetxatuko dut.

D.P.: Nik ez nuke esango erreferenterik dudarik.

Ez duzue inoiz elkarrekin pintxatu. Matienako hurrengo jaietako nobedadea izan daiteke!

A.P.: Behin lokalean *pintxatu* genuen elkarrekin, baina jendarean ez. Bakoitzak bere estiloa du (barrez).



LAUHORTZA

JOXE GARAIZABAL

Naturazalea



Badatoz

Badatoz hauteskundeak.

Badatoz kartel, posta, iragarri eta abarrez gezur saltzaile txolinak. Hamabost eguneko jazarpena hurrengo lau urteetarako lasaitasunaren bila.

Hautetsiak banatzeko D'Hondt metodoa erabiltzen da. Metodo honek alderdi politiko handien alde egiten du, alderdi txikiei kalte eginez. Metodo honek hautesle-eroldaren herena baino boto gutxiagorekin gehiago absolutua izateko aukera ematen du.

Badatoz, baina hobe gendak hauteslearen kalkulua proportzionaltasun osoz egingo balira.

Erabakiak hartzeko orduan ere gehiago absolutua lortzeko hautesle-eroldaren erdia baino gehiago beharko litzateke eta, horrela, gehiagoren artean adostu beharko lukete. Eta horrela, seguruenik, gehiengoak nahi duenetik hurbilago egongo litzateke.

Badatoz, baina hauteskunderdez at, beste edozein garrantziko gai bozkatzeko aukera bermatu beharko litzateke. Arautegi zehatz bat jarritz: zenbat sinadura behar diren eskerra egiteko, zenbateko maiztasunaz egingo diren bozketak, onartuko ez balitz noiz egin daitekeen bozketa berria, eta horrela beharrezko arau guztiak.

Badatoz, baina agintea ez dago hauteslearen esku. Agintea munduko agintari ekonomikoaren esku dago. Eta agintari politiko gehienak agintari ekonomikoaren menpekoak dira.

Guztion ongizatea eta beharrezkoak bete nahi izanez gero gure indar eta ideia guztiak jarri beharko ditugu martxan egoerari buelta emateko. Bakarkita eta taldean indartsu jarraitu beharko dugu gure eskubideak lortzeko eta bermatzeko.



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

MATRIKULA





IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Goi mailako ziklotarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

Matrikula egiteko ordutegia:
Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-13:00

MATRIKULA-EPEA: ekainaren 15etik 30era eta irailaren 2tik 16ra